



# ARGIA



URTEBETE KANAKY HERRIKO MATXINADATIK

## Zertan da deskolonizazioa?

+ Elkarrizketa FLNKS-ko Mickael Forresti

26-32. orrialdeak



**Aldarri antifaxista karrikara**

4 | MARTXOAK 8



**"Deserosotasunik barik ez da ezer aldatuko"**

16 | LEIRE AMENABAR



**Autobiografia linguistikoak, txikitik eragiteko**

36 | EUSKARA

# OROIMEN HISTERIKOA

Nagore Irazustabarrenaren podcasta

*Historia diren istorioek txoratzten  
gaituztenontzako saioa*



Asteartero  
ARGIAN eta  
audio plataforma  
guztietan

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: XOSE BOUZAS

## Iritziak

- 21 | IRATI LABAIEN
- 22 | MALORES ETXEBERRIA
- 23 | MIKEL OTERO
- 23 | ARANTZA GUTIERREZ
- 24 | MATI ITURRALDE

## Finkoak

- 38 | GORPUTZ HOTSAK
- 40 | KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

### 16 | LEIRE AMENABAR, EUSKALDUNOK KOMUNITATE MIGRATUAK GUREAN INTEGRATZEKO DITUGUN JARREREZ

Psikologia soziala aztertzen du Leire Amenabarrek. Herri hartzaile izatetik harrera herri izatera pasatzeko geure buruei eta erdaldunei egin beharreko galdera deserosoz aritu da Danele Sarriugarterekin.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

14 | NET HURBIL

### Errumanian meatzaritzak eskuin muturra eta krisi instituzionala piztu ditu

Nicolas Goñi

26 | NAZIOARTEA | KANAKY HERRIA

### 2024: deskolonizaziorako aukera oro sinesgaitz

Jenofa Berhokoirigoin

33 | NAZIOARTEA | SERBIA

### Esku odoltsuen matxinada

Ibai Trebiño

36 | EUSKARA

### Autobiografia linguistikoak eskolan euskara hauspotzeko

Zigor Olabarria

46 | KULTURA | "GAZTETXEAK BERTSOTAN"

### "Gazteon ahots kritikoa entzunarazi nahi dugu"

Gorka Peñagarikano

48 | KULTURA

### Chantal Akerman eta urrezko 80ak

Gorka Peñagarikano



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

### Jabetza

Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

### Erredakzioa

Axier Lopez, Eneko Imaz, Eneritz Arzallus,  
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,  
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,  
Lander Arbelaitz, Leire Artola,  
Manex Moreno, Mikel García,  
Onintza Irureta, Unai Lomana,  
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

### Diseinua

Lander Gonzalez, Maitane Gartzandia

### Argazkilaria

Dani Blanco

### Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

### Banaketa

Olatz Korta

### Azoka

Mikel Olabide

### Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze,  
Bego Zuza

### Web garapena

Asier Iturralde

### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

#### Telefonia

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA  
honako enpreekin batera:

**antza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

**iametzta**

**ADUR** software  
productions

## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,  
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza  
aitortu eta baldintza beretan egin ez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat  
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,  
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



Ekoedizioaren Institutuko  
bazkide da ARGIA



**OLATUKOOP**

Ekonomia sozial eraldatzailearen  
sareko kide gara



# Ni ez nau Poliziak zaintzen

Noiztenka berez doana orotaraztea ez dago gaizki: ni ez nau Poliziak zaintzen, nire ahizpek\* bai. Nola zaindu nazake sistema bere horretan iraunarazteko funtzioari segi dabilen uniformedun horrek? Bizitza gehiegiren bazterketan eta esplotazioan oinarriturikoa da daukagun antolaketa zisheteropatriarkal kapitalista koloniala: emakumeak\*, papergabeak, herritar kolonizatuak, transak, desgaitu saillaturikoak, putak, bollerak, lumadunak, arrazializatuak, lodiak, langabeak, etxegabeak, Hego Hemisferiokoak... Nekez irau daiteke mundu trakets honetan elkartasunik eta alternatibarik gabe.

Aliantza feministaren deia ozenki oihukatu zuten milaka eta milaka herritarrek larunbatean. Aliantzarena eta ausardiarena. Beharrezkoak ditugulako, batez ere berriz ere faxismoaren gorakadari aitzina egin behar diogun garai arraro honetan. Aliantzak eta ausardia, beti ere dantzari lekua eginda. Kantatu, maitatu eta dantzatu ezin bada, ez delako gure iraultza.



**ORO EXPRESS**  
—  
**VENTA DE JOYAS  
AL MEJOR PRECIO**

**COMPRAMOS  
PLATA**  
—  
**ZILARRA  
FROSTEN DUGU**

**ORO EXPRESS**  
—  
**¡SUPERAMOS  
CUALQUIER OFERTA!**  
—  
**MÁXIMA T...**







DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA



Donostia

ANA BANEAS



Bilbo

MARINA GALLARDO



MANEX MORENO / ARGIA CC BY-SA



Baiona

SABINA HOURCADE

# Faxismoaren kontra, "ausardia eta aliantza feministez armaturik"

ERREDAKZIOA

**M**ugimendu feministak manifestazioak egin zituen martxoaren 8 goizean Donostian, Gasteizen eta Iruñean, eta arratsaldean Baionan eta Bilbon. Oinarritzko irakurketa partekatu dute, eta horri gehitu diote hiri bakoitzean bertako problematika, eragile eta ekimenen erreferentzia. Hona hemen Mugimendu Feministak hiriburuetan egin diren manifestazioetan partekatu duen irakurketa:

"Hemen gaude, berriro borrokan eta kaleak hartuz Martxoaren 8an. Eta asko dira, oraindik ere, kalera ateratzeko ditugun arrazoiak, badelako garaia emakume\*, trans eta bollerok jasaten dugun zapalkuntzekin amaitzeko. Urtez urte Euskal Herriko Mugimendu Feminista geroz eta indartsuago eta artikulatuago dagoela erakusten dugu, baina testu-gurua ez da askorik aldatu.

Desberdinkeriek bere horretan diraute, eta sistema zisheteropatriarkal kapitalista kolonial eta arrazistak birfundatzen jarraitzen du. Zapalkuntza mekanismo forma berriak agertu dira, botere erlazio forma konplexuak agertu zaizkigu eta ezin dugu dena dikotomia

**Ezkerreko sektore batzuetan ere ari gara ikusten feminismoarekiko kontraktasuna edota diskurtso arrazisten gorakada**

sinpleetan ulertu; ezker / eskuin, goian / behean.

Eskuin muturraren, faxismoaren eta jarrera erreakzionarioen gorakada ikus dezakegu hainbat esparru eta sektoreetan; sare sozialetan, prentsan, kalean, diskurtsoetan, proposamen politikoetan... Ez da soilik urrutiko zerbait, eskuinetik datorrena ez da mugimendu estanko bat. Ezkerreko sektore batzuetan ere ari gara ikusten feminismoarekiko kontraktasuna edota diskurtso arrazisten gorakada. Aipaturiko guztiak emakume\*, trans eta bollerok jasaten dugun zapalkuntza eragiten du batez ere, sistema zisheteropatriarkal kapitalista kolonial eta arrazistaren sostengurako ezinbesteko harreman eta ideiak sortzen eta hedatzen dituztelarik.

Jarrera eta posizionamendu belizistek ere indarra hartu dute azken urteetan, eta horrek zuzenean gure gorputz eta lurraldeen aurkako zapalkuntzak areagotzera garamatza. Indarkeriak dituen askotariko espresio horien aurrean gure bizitzak indarkeriarik gabe bizitzeko dugun eskubidea aldarrikatzen dugu.

Mugimendu Feminista egiten ari den lan eta borrokaren ondorioz, garaipen ugari lortu ditugu. Hala ere, ez da erraza izan. Mugimendu Feministak urrats bat egiten duen bakoitzean, oldarraldi erreakzionario bat jasotzen dugu bueltan pribilegioak kolokan ikusten dituzten partetik. Gizonez ari gara, azaroaren 25ean esan genuen bezala, ez bazara konponbide arazoa zara. Eta zoritxarrez, arazo izaten jarraitzen dugu. Emakume\*, trans eta bollerok jasaten dugun zapalkuntza betikotzen duen sistemaren sostengua zarete.

Horregatik diogu, egun, feminismoekin posizionatzeko ausardia aldarrikatzen dugula, norbere erosotasunetik ateratzeko aldarri gisa eta erresistentzia eta ofentsibarako lubaki gisa. Feminismoa ezkerreko borroken erdigunera ekarri behar dugu, feminismo antiarrazista, anticolonialista, antikapitalista eta antiklasista. Feminismoa baita eraldaketarako proposamen integralak egiteko ezinbesteko mugimendua.

Etengabe zapaltzen gaituen sistema baten kontra aterako gara aurten ere Euskal Herriko kaleetara. Hainbat ardatz eta alorretan mekanismo ezberdinen bitartez, askotariko zapalkuntza eta esplotazio egoerak jasan behar ditugu gure gorputz eta lurraldeetan, maila mikroenetik hasi eta makroenera. Hiru ardatz nagusi aipatu nahiko genituzke gaurkoan.

Lehena indarkeria matxistarena; emakume\* trans eta bollerok jasaten ditugun eraso eta menderakuntza egoerekin amaitu beharra dago. Erasoak, soldata arrakala, egiten dugun ordaindu gabeko lana, kristalezko sabaiak... Indarkeria dira eta sistema betikotzeko ezinbesteko tresnak dira.

Bigarrenik, krisi ekosoziala ekarri nahi dugu mahai gainera. Gaur egun, krisi eko-



ANA BANEGAS



sozial global batean murgilduta gaude: kapitalismoak, patriarkatuak eta kolonialismoak bere fase neoliberallean eragindakoa, sustrai sakonak dituena. Bizitza akabatzen duen sistema baten aurrean gaude: bai pertsonen bizitzak, bai natura bera. Baliabide naturalak eta lurra bera erabat pribatizatuta daude eta hazkunde amaigabearen logikak, planetaren mugak ez ditu kontuan hartzen. Hemen ere, negozioa eta merkantilizazioa dago beste ezeren gainetik. Gainera, lurren pribatizazioa eta ustiapena ez da ausaz gertatzen. Iparraldeko herriek Hegoaldekoak kolonizatzen jarraitzeko ezinbesteko tresna da, eta Euskal Herritik ere badugu ardura hori salatzeke eta horrekin amaitzeko ardurak exijitzeko.

Hirugarrenik egungo sistema arrazista eta koloniala betikotzen dituzten migrazio politikak salatu nahi ditugu. Atzeritartasun legearekin amaitu behar dugula ozen aldarrikatzen jarraitzen dugu. Baina, ez hori bakarrik, urjentziaz borrokatu eta aldarrikatu behar ditugu migrazioaren kontra ematen ari diren jarrera arrazistak eta segurtasunaren izenean polizia gehiagoren beharra aldarrikatzen dituzten diskurtsoak, zeinak arrazakeria areagotzen duten.

**Bizitza akabatzen duen sistema baten aurrean gaude: bai pertsonen bizitzak, bai natura bera**

Martxoaren 8 honetan ere, ezin ditugu ahaztu munduan barrena hainbat gatazketan borrokan eta erresistentzian dabilzan kideak. Hemendik gure babes eta elkartasun osoa; Palestina, Sahara, Kurdistan...besarkada bana Euskal Herritik.

Beraz, har ditzagun kaleak eta oihukatu dezagun ozen nazkatuta gaude-la. Segi dezagun aliantzak eraikitzen oldarraldiz beteriko garai hauetan. Elkartu gaitetzen, saretu gaitetzen herri herri eta asanbladaz asanblada. Batu ditzagun indarrak herri eta jendarte feminista bat eraikitzen bidean. Aspaldi ekin genion bide honi eta ez dugu inolako asmorik atzerapausorik emateko. Faxismoaren kontra, ausardia eta aliantza feministez armaturik gaude." ●

## “Erreferente iraultzailea eraikitzeke” deia Itaiatik

 ERREDAKZIOA

**I**taia emakumeen antolakunde sozialistak ere bere irakurketa zabaldu zuen Martxoaren 8a kari. Hemen duzue laburpena:

"Martxoaren 8a aurpegi zuriketarako erabiltzen duten alderdi politikoen, instituzioen eta enpresarien hitzontzikeriak alboratu, eta matxismoaren eta faxismoaren aurka egiteko borroka eguna da gaurkoa. Martxoaren 8aren izaera iraultzailea berrartu nahi dugu. Hain zuzen, alderdi sozialistak eta bertako emakume iraultzaileek emakumeon emantzipazioa bere muturre-raino eramateko abiatu zuten borrokaren lekukoa hartu nahi dugu. Gainera, gaur egungo testuinguru ekonomikoak eta sozialak antolatzeke eta mobilizatzeke beharra oraindik eta gehiago mahaigaineratu du. Izan ere, oldarraldi erreazionarioak mundu mailan ideia atzerakoen eta matxisten zabalpena eta normalizazioa dakar. Ideologia ultraeskuindarrak berebiziko eragina du langile klaseko kolektibo zaugarrietan, esate baterako, proletalgoaren, atzeritarren zein emakumeon aurkako ideiak, jarrerak eta politikak bultzatzen ditu. Boterea eskuratu ahala, alderdi eskuindarrek hartuko dituzten neurri ekonomikoek eta politikoek ere emakume langileon bizitzetan zuzenean eragingo dute. (...) Eta, gainera, egoera horri aurre egiteko eta matxismoaren aurka borrokatzeke eskubide politikoak, oraindik eta gehiago urratuko dituzte. Argi dugu, faxismoak emakume langileon aurka egiten duela maila kulturean, ekonomikoan eta politikoan. Beraz, jarrera eta ideia erreazionario guztiei aurre egitea urgentzia politiko da.

Azken urteetan, ordea, feminismoaren baitako zenbait sektore, instituzioei aldarrikapenak eta exijentziak egitera mugatu dira, politikarako joko-zelaia alderdi politiko profesioaletara eta instituzioetara mugatuz. Horrek kale mailako borroka eta mobilizazioak lausotzea eragin du, kale mailako mugimendua instituzionalizatuz. Azken urteetako politikagintzak, aldiz, argi erakutsi du, emakume langileon bizi baldintzak hobetuzetik urrun, institu-

zio kapitalistek eta bertako politikariek emakumeon zapalkuntzarekin amaitzeko egiturazko mugak dituztela. (...) Gainera, instituzioetan klase ertaineko emakumeentzako politikak sustatu badira ere, emakume proletarizatuentzako ez dira aterabidea. Eskuinak ezegokortasun ekonomiko eta politiko hori ahalbidetu du sekulako interbentzio kulturala egiteko, ideia baztertzaileak eta atzerakoiak sustatuz. Ezker politiken porrotek sorturiko desatxikimenduak eskuineratzen eraman du gizarteko sektore handi baten ikuskera eta pentsaera. Horrela, lehen aipatu bezala, ideia matxistak eta erreazionarioak maila ezberdinetan eta erritmo bizkorreran zabalduz ikusi ditugu: instituzioetan, kalean eta baita komunikabide edo sare sozialetan. (...) Oldarraldi erreazionario horri aurre egitea urgentzia politikoa da. Horri aurre egiteko alternatiba, ordea, ez da ezker instituzionala, ezta bera indartzeko borroka martxan jartzea ere. Alternatiba instituzio kapitalistetatik kanpo antolatuko den langileon antolakuntza da. Zentzu horretan, diskurtso matxista eta faxista horiei aurre egiteko dien erreferente iraultzailea eraikitzea da dugun erronka nagusia.

Bide horretan, langile klaseko kolektiboen arteko lankidetzak ezinbestekoa da, eta hor emakume langileok lehen leerroan egon behar dugu: emakume migranteak, sektore feminiziatuetako langileak, indarkeria matxista pairatu dutenak, etab. Egoera larria da, eta are larriagoa izan daiteke, beraz, beharrezkoa ikusten dugu, ezker instituzionaletik harago, langileriarentzako erreferente iraultzailea eraikitzea. Norabide horretan, faxismoari eta matxismoari aurre egiteko dion mugimendua indartsua eraikitzeke momentua da, batetik, faxismoaren eta matxismoaren aurkako kontzientzia zabalduz eta, bestetik, jarrera edo eraso matxistei erantzun irmoak emanez. Hau guztia gauzatzeke, ordea, emakume langileok lehen leerroan jardun behar dugu: emakumeon antolakunde indartsuak eraikiz eta emakumeok borroka prozesu hauetan aktibo politiko izanez". ●

# “ Erronka da gu entzutea eta auzokideak garela onartzea ”

✂ JUNE FERNANDEZ 📷 PELLO MAUDO

**A**rgentinatik Getxora migratu zen Celeste Agüero, kantutegi herrikoi batekin eta poesia xuxurlatzeko kartoizko hodi batekin, zapalkuntzen aurkako zubiak eraikitzeke prest. Zaintza-lanetan jardun ondoren, EH Bildu Getxoko kulturartekotasun arloan ari da lanean. Martxoaren 8a Getxo bere bizitokian igaro zuen: kumbia dekolonial eta antiarrazista topaketa antolatu zuen Algortako Herriko Tabernan, Abianen, Hija del Nopal Djrekin batera.

## Nola eragin dio migrazioak zure nortasunari?

Migratzen duzunean identitate berri bat sortzen da, migratzaile marroiarena. Argentinan irakasle izatetik nentorren, eta hemen zaintzaile gisa baino ez naute identifikatzen. Jendea harritzen da Argentinakoa naizela diodanean, nire herrialdea zuria den ideia okerra dutelako. Gainera, lodia eta bollera bazara, pertsona bitxia zara.

Aurreko etxebizitzako auzokoa lehen aldiz agurtu nuenean, garbitzailea ote nintzen galdetu zidan. “Ez, jauna, zure bizilaguna naiz. Urte askotarako”. Ez diot meriturik kendu nahi zaintza lanari, ardua handia dakar eta nik ehuneko ehun eman dut, Argentinan egiten nuen irakasle lanean nola. Arazoa da atzeritartasun lege arrazistak inposatzen digun menderakuntzaren ondorioz egin behar dugula lan hori. Estatuak zokoratzen gaitu eta ultraeskuin faxistak gaitz guztien errua egotzen digu. Oso zaila da diskurtso horiei bakarrik aurre egitea. Ondorioz, elkartzeko, aliatzeko eta doluan elkar babesteko behar handia daukagu. Pribilegiatua izan naiz ni, bertokoek zein migratuek harrera egin didatelako eta, hortaz, ez naiz babesgabe sentitzen. Baina pertsona migratu guztiak ez dira heltzen espazio horietara.

## Zuen esperientziak askotarikoak dira, ez ordea immigrazioari buruz dugun iruditeria.

Gorputz marroi eta beltzei buruzko arreritzi horiek asko sumatzen dira egunerokoan. Kirrinka handia egiten dit “migrazioaren fenomenoaz” hitz egiteak. Gure umeak edo aitita-amamak zaintzen dituzten pertsona asko mota guztietako



indarkeriek behartuta atera dira beren herrialdetik. Gizarteak ulertu behar du emigratzea giza eskubide unibertsala dela.

Beste aldean, atzeritarrek maiz ez dakite nora heldu diren. Lehen esperientzia espazio burokratikoetan da, botere-desberdintasuneko egoera batean: zu urduri zoaz, zure karpetatxoa paperez beteta, eta dagoeneko beste 700 pertsona artatu dituen pertsona bat duzu aurrean. Ongi etorri lana egiten duten elkarteak lepo daude. Egungo nire lanak aukera ematen dit pentsatzeko nola ahalbidetu ditzakegun elkar ezagutzeko konfiantzazko espazioak.

## Eta nola?

Auzoan barrena ibiliz, pertsona hurbila izanik, eta udalerriko oinarritzkoena errazten, esaterako, nola helarazi kexa edo behar bat. Erreferentziazko migratzaile bat izateak herritartasuna eraikitzen lagundu dezake. Hala ere, esan dudana bezala, udal guneetan parte hartu nahi izatea premiazko beharren ondoren dator: papearak, seme-alabak eskolan kokatzea, nostalgia eta migrazioa doluari aurre egitea...

Getxon aniztasun handia dago, 50 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira, eta gure jendearekin elkartzeko behar hori ere badago. Garrantzitsua da udalerrietatik egunerokotasun hori lantzea, konfiantza nire bizilagun migratzaileak era guztietako diskriminazioa jasotzen duela eta gaur egun edozein euskaldunek bizi dituen gaiei ere aurre egiten diela, hala nola

alokairu- edo lan-baldintzei. Are gehiago, azentua entzuten dizutenean ez dizute etxea alokatu edo kontratua egin nahi. Erronka da gu entzutea eta auzokideak garela onartzea.

## Erraza egiten zaizu antolatuta ez dauden emakume migratuengana gerturatzea?

Kale beretan ibiltzen gara. Behin, Getxophoton lan egin nuen garai batean, Ereagako hondartzan, iritsi berriak ziren 20 urteko neska etorkin batzuek galde-tu zidaten argazki horiek zer ziren. Hiru haur zaintzen dituzte, egoiliar, esklabotzatik oso hurbil dauden lan-baldintzetan. Argazkien kontuagatik hasi ginen hizketan eta haien nekea eta prekaritatearen berri eman zidaten. Ereagako hondartza besterik ez zuten ezagutzen, umeekin egiten zuten paseotxoak zelako. Hori da askoren errealitatea XXI. mendean...

## Bereziki Getxon...

Bai, Getxon badago oso ondo bizi den jende asko, eta jende horrentzat lan egitera datorren jendea ere bai. Borroka sozial handia egiten duten lagunak ere baditugu.

70.000 biztanletik 9.000 erroldatutako pertsona migratzaileak gara (seguruenik erroldatu gabeko asko ere egongo dira). Gure kezka handiena da kaleko egoeran dauden 150 migratzaile ditugula, baita Uribe Kostan zehar baliabide bila dabil-tzan beste batzuk ere. ●

# Eskratxe



JUNE FERNANDEZ

**A**ntifaxismoari buruz idatzi nahiko nuke, hori baita aurten mugimendu feministaren gaia. Alabaina, eskratxea egin diote Martxoaren 8ko bezperan euskal kazetari antifaxista eta profeminista bati.

Gizonak bere lehenengo liburua aurkeztu du Madrilen bi kazetari ospetsuk lagunduta. Antzokiko publiko artetik bi ekintzaile antiarrazistek hurrengo hitzak jaurti dizkiote: "Publikoki salatua izan zara emakume bat bortxatzeagatik, sexu langile arrazializatua. Zein erraza den besteen indarkeriaz idaztea zurea ezkututzen duzun bitartean".

Protagonistak harridura plantak egin eta erantzun zinikoa bota du: "Ez dakit zertaz defendatu behar naizen". Jakin badaki 2023ko Bartzelonako M-8ko manifestazioan akusazio berdina jasotzen zuten panfletoak banatu zirela.

Momentu hartan, harreman estua nuen gizon horrekin, eta bere bertsioa eman zidan: Errejónen eta Monederoren defentsen nahasketa tamalgarrria. Hitz gakoak: onespina, alkohola, salaketa faltsua, osasun mental arazoak (kasu honetan emakumearenak) eta estortsioa.

Betiko gidoi patriarkala errepikatu du gure aliatuak: karikaturizazioa (emakume zoro eta diruzale baten biktima da gixajoa) eta, bolada batez profil bajuari aritu ondoren, indarrez bueltatzea espazio publikora (baietz Errejónen edo Monederok liburu bat atera laster!).

Onartu behar dut lehenengo eskratxeak atzera egin zidala: akusazio larriegia modu anonimoan egiteko, xehetasunik gabe, gizonaren izen-abizenak eta argazkia erakutsita. Sinetsi nahi nuen "bortxaketa" hitza esajerazioa zela (hara, neronek ere karikaturizatu nuen biktima). Emakumearen testigantza entzun behar izan dut argi izateko eskratxea ez dela ekintza punitibista, baizik eta inpunitearen kontrako erantzuna.

Aurreko astean, Maider Galardi kazetari feministak hurrengo esan zuen 11 entzuteko saioan: "Foku handia jartzen ari da ea zilegi den anonimo ki halako salaketak publikoan egitea, baina uste dut buelta eman behar diogula, eta kontua dela gure ahotsa zilegiztatzen al den berez zilegiztatu behar liratekeen tokietan: kalean, familian, lagunartean, baita komisariatetan ere".

Pentsa zer nolako aukerak eta zilegitasuna jasoko dituen sexu langile arrazializatu batek, erasotzailea gutariko bat izanda. Finean, hori ere bada auzi antifaxista. ●



ADUR

# Guraso berantiarrak

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

**E**sperma eta obulu emaleak, intseminazio artifiziala, in vitro ernalketa, adopzioa... 40ren bueltan edota 40taka urterekin guraso izatea ahalbidetzen duten aukerak ugariak eta aurreratuak dira, baina ugalketa teknikek hartu duten abiadura azkarragoa da, adin horretako gero eta guraso gehiago izateak dakartzan aldaketa sozialen inguruko gogoeta baino. Hala diote *ElDiario*ren erreportaje batean.

Zergatik daude gero eta guraso berantiar gehiago? Argudiatzen da, besteak beste, hezkuntza urteak eta gaztaroa luzatu egin direla, baina baita ere prekaritateak zaildu egiten duela bizitza-proiektu bat gauzatzea.

Zenbat eta zaharrago guraso izateak duen ondorioetako bat agerikoa da: neke fisikoa (eta mentala). Ume jaioberri, ondoren haur txiki eta gero ume koskor baten behar eta erritmoei erantzutea –gurasoa ere adinean gora doala– neketsua da, ez dago zalantzarik, eta sasoitsu egotea beti da lagungarri. Erreportajea, esaterako, ama berantiar batek perimenopausia aipatu du: “Artikulazioen oxidazioa, insomnia, umore aldaketak... Horrek guztiak haurren energiarekin elkarbizi behar duenean, sarri ez da erraza”.

Beste gako interesgarri bat ere gehitu du hainbat guraso berantiarren: 40-50 urteren bueltako belaunaldian, ohikoa izaten da norbere gurasoen zaintzak gero eta protagonismo gehiago hartzea, eta bi errealitateek bat egitea, alegia ume txiki baten zaintzak eta adineko gurasoenak uztartzea, eta ez da baxu samurra. Gainera, guraso askok jotzen du amona-aitonengana, haurren zaintzan eta kontziliatzeko garaian lagundu diezaizuten, baina hori ez da posible, zaintzeko ordez zainduak izateko egoeran baldin badaude.

Dena ez da iluna, haurrak berandu izan dituztenen ahotan. Nabarmendu dute adinean zaharrago izanda, ohikoagoa dela egonkortasun sozioekonomiko handiagoa izatea, eta erabakiak kontzienteagoak eta aztertuagoak izan daitezkeela (esaterako, bikotekidea aukeratzeko garaian). “Orokorrean, lehentasunak garbiagoak dituzu eta izandako bizi-esperezia lagungarria da, baita haurrak hezteko garaian ere”.

Elkarrizketatuetakoa batek garbi du alde ona: 30 urteetatik aurrera, independentzia ekonomikoa daukazunean, nahikoa irten, bidaiatu, ligatu eta denbora zukutu izana abantaila da, hori guztia disfrutatu eta gero seme-alabak hezten buru-belarri jartzeko. ●

# MOTZEAN

Europar Kontseiluak onartu du Ursula Von der Leyenek gastu militarrean proposatu duen 800.000 milioi euroko gastuarekin aurrera egitea. Horretarako bi arrazoi nagusi argudiatu ditu: Errusiari aurrea egitea eta Europar Batasunak aurrerantzean bere burua AEBen babes militarrik gabe defendatu beharko duela.

Xabier Zabalo euskal presoarentzat hirugarren gradua onartu zuen Jaurilaritzak, baina espetxera itzularazi du Auzitegi Nazionalaren Fiskaltzak. Frantziako Poliziak 2002an atxilotu zuen zumarragarra, eta 30 urteko zigorra betetzen ari da. Sare Herritarrak deituta, mobilizazioa egin dute.

Polizia infiltratu batek bi urte igaro ditu Kataluniako Palestinaren aldeko mugimenduetan. *Directa* hedabidearen ikerketa batek ondorioztatu du 2018. eta 2020. urteen artean murgildu zela Kataluniako Palestinaren aldeko eta ezker independentistaren mugimenduetan.

Berriz ere eskolak ematen hasi da mezu arrazista eta transfoboengatik ikertutako EHUKo irakaslea. Sare sozialetako kontuak "lapurtu" zizkietela erranik, salaketa jarri zuen irakasleak. Gernikako auzitegiak ondorioztatu du ez dagoela modurik mezuak berak idatzi dituen frogatzeko.

Euskal Herrian Euskarazen arabera, inauteri jaietan Tolosako tren geltokiko segurtasun agente batek eraso egin zion EHEko kide bati, agenteari euskaraz hitz egiteko eskatu ziolako. Tolosako alkateak "kezka" adierazi du eta azalpenak eskatuko dituela jakinarazi.

Haur eskoletan euskarazko ehun plaza gehiago eskainiko ditu Iruñeko Udalak hurrengo ikasturtean. Euskarazko eskaintza handitzeko akordioa erdietsi dute EH Bilduk, PSNk, Geroa Baik eta Zurekin Nafarroak. “Lanean jarraituko dugu hizkuntza-murgiltzea bermatuko duen haur-eskola eredu baten alde”.

Gauetz ia aste osoan atekak itxita izaten ditu Donibane Lohizuneko osasun zentro horretako larrialdi zerbitzuak. Herri Berri udal oposizio taldeak deituta, mobilizazioei ekin diete herritarrek eta jadanik 3.000 sinadura bildu dituzte zerbitzu “iraunkor eta eraginkorra” defendatzeko.

Trebiñu Araban sartzeko “aurrerapausorik” ez dela eman salatu dute enklabe zinegotziek. Bizilagunek “egia eta politika” merezi dutela diote, oraindik konponbiderik bilatu ez zaizkien arazo ugari edukitzen jarraitzen baitute, bereziki ikasketei eta osasun arretari lotuak.

## TEKNOLOGIA

# Komentokrazia



DIANA FRANCO EGUREN

Sare sozialetan badira zenbait pertsona eragin gaitasun handikoak. Jarraitzaile ugari dute, eta euren iritzia egiazat hartzen dira. Askok, ordea, egia barik, interes propioa edo klase baten interesak iraunkortzea bilatzen dute. Ameriketara komentokrata deitzen zaie. Alegia, eremu digitalean iruzkinen bidez errealtatea euren komentuziara manipulatu, desitxuratu eta moldatu bizimodua irabazten dakien elitea. Lan horretan dihardutenek Interneteko plataforma masiboa dute lan eremu, eta euren egitekoa da gutxi batzuei komentuziaren errealtatea sortzea; euren burua libretzat duten morroiak dira. Berba ez da berria, baina nik orain dela gutxi eza-gutu dut. Espainieraz hitz egiten duten Ameriketako herrietan aspaldi erabiltzen den hitza da. Munduko beste toki askotan bezala, han ere Internet da pertsona askoren informazio eta ezagutza iturri nagusia. Komentokratak izan ohi dira informatuta dauden itxura eman nahi duten pertsonak, baina berdin die esaten dutena egia den edo ez. Haien iritzia aintzat hartzea bilatzen dute, eragin esparrua eta boterea handitzeko, horrek ematen die-lako darabiltzaten plataformetan sortzen dituzten edukiak monetizatzeko aukera, eta eragiten ari diren botere politikoen eremuetan bezero berriak aurkitzeko ahalmena handitu dezakete.

Komentokratek ez dute zorrotasuna bilatzen, emozioetatik tiratzen dute, ez dira besteen ikuspuntuetara irekitzen, ikasi dutelako beren lana errentagarri bihurtzen polaritatean eta algoritmoen menpean. Egun, badakite pertsona askoren arreta plataformetan dagoela, eta edukiak kontsumitzeko modu berriek, berehalakotasunera lotuak, ez dietela tarterik uzten kontrasterako eta hausnarketarako. Horregatik, sorturiko desinformazioaren aurrean inolako aitortzarik gabe, berri bat beste batekin kateatzen dute, errealtatearen ikuspegi lerratua sortuz.

Jokabide berriei izena jartzea interesgarria da, bizi dugun errealtatea hobeto ulertu dezagun. ●



## ARGIAK ALDIZKARI BERRI BAT ABIATUKO DU MARTXOAREN 30EAN: BIZI BARATZEA ORRIA

Urtaro bakoitzean zabalduko da, Lurrari buruzko edukiak ekarriko ditu eta formatu oso berezia izango du, barnean poster handi bat duena. ARGIAkoek astekariarekin batera jasoko dute doan, eta gainerakoek oraintxe dute aukera Bizi Baratzea komunitatekoak edo ARGIAkoak egiteko, webgune honetan: [eginbizibaratzea.eus](http://eginbizibaratzea.eus)

## GORABEHERAK



### Emakume bat lehen aldiz Lantzeko Ziripot pertsonaia izan da.

Lantzeko inauteri txikien kalejira ikusle guztien begietara urtero modukoa izan zen. Txatxoak, Zaldiko, Ziripot eta Miel Otxin herriko ostatuak ganbaratik jaitsi eta herritik barna bira egin zuten txistularien laguntzarekin. Askok, ordea, ez zekiten une historiko bat bizitzen ari zirenik.

### 2024an Euskal Herrian estreinatutako 900 filmetatik bi baino ez dira euskaraz izan.

Pantailak Euskarazek eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak aurkeztu dituzte datu "kezagarriak". Euskaraz eskaini diren estreinaldi kopurua ez dela %1,6ra iritsi ondorioztatu dute. Erakunde publikoei eskatu diete "herritar guztien hizkuntza eskubideak" zinemetan ere babesteko neurriak hartzea.



# ERRUMANIAN MEATZARITZAK ESKUIN MUTURRA BULTZATU ETA KRISI INSTITUZIONALA PIZTU DU

Errumaniako presidentetzarako kandidatu ohia Călin Georgescu, aurten berriro iragan behar diren hauteskundeetara erregistratzera zihoalarik, Poliziak atxilotu zuen otsailaren 26an. Egozten dizkioten krimenatarik bat “ordenu konstituzionalaren aurkako ekimenen sustatzea” da. Sinesgaitza bada ere, duela hamar urte nazioarteko jasangarritasun kontuetan ziharduen agronomoa bihurtu da neonazi, eta meatzarien eta sikarioen laguntzaz boterea hartzen saiatu da.

 NICOLAS GOÑI

**C**ălin Georgescu (Bukarest, 1962) ofizios agronomoa da. Lurzoruen berrosaketan eta ingurune ingeniarietan espezializatua, lurzoru zientzian doktoretza egin zuen. Laborantzarako interesa familiatik datorkio: aita ingeniari agronomoa zuen eta amak Errumaniako Laborantzako Ministerioan lan egiten zuen. 2000tik 2013ra, Errumaniako Garapen Jasangarrirako Zentroaren zuzendari exekutiboa izan zen Călin Georgescu. Bertan koordinatu zuen Errumaniako Garapen Jasangarri Estrategia eta Europako araudien arabera zehaztu zuen. Nazioarte mailan, 2015-2016 urteetan NBEn Jasangarritasun Globaleko Indizearen Institutua (United Nations Global Sustainability Index Institute, UNGSII) fundazioko zuzendaria izan zen. Horrez gain, desazkundeen oinarri zientifikoak zabaldu zituen Erromako Klubak Europan duen ikerketa zentroko presidentea izan zen 2013tik 2015era.

1990eko hamarkadan, MER alderdi ekologistan aritu zen. Baina gaur egun, agroekologia eta jasangarritasun globala ardatz dituela dirudien aditu horren iritzi politikoak ez dira hain internazionalista eta aurrerakoiak, urteetan zehar urrun xamar lerratu baitzen eskuinera. 2020an AUR alderdi ultrakontserbado-

reak bere izena proposatu zuen ahalezko lehen ministro gisan, baita alderdi horren ohorezko presidente izatea ere, azkenean iritzi aldatu arte, Georgescuk Ion Antonescu eta Corneliu Codreanu goraiatu zituela ohartuz gero. Antonescu 1940tik 1944ra Errumania zuzendu zuen eskuin muturreko diktadorea izan zen, Hitlerrekiko erabateko kolaborazioa bultzatu zuena eta Errumaniako armada ekialdeko frontean Odesaraino basakeriak egitera igorri zuena. Codreanuk LANC alderdi ultranazionalista, antisemita, antikomunista eta homofoboa sortu zuen.

Halako erreferentziak izanik, ez da hain harritzekoa otsailaren 26an, prokuradorearen aurrean deklaratu ondoren, kameran aurrean Georgescuk agur nazia botatzea, AEBetako buruzagitzan berriki bultzaturiko moda jarraiturik.

## ERAGINPEKO HAUTESKUNDE KANPAINA

Sei krimen egozten dizkio Errumaniako Justiziak Georgescuri: 1) ordenu konstituzionalaren aurkako ekimenen sustatzea; 2) desinformazioen zabaltzea; 3) hauteskundeetarako bere kanpainaren finantzamenduei buruzko deklarazio faltsuak egitea; 4) izaera faxista eta arrazista duen antolakunde baten

bultzatzea; 5) gerra krimenen eta genozidioaren goraipamena; eta 6) izaera antisemita duen antolakunde baten bultzatzea.

Auzi hori oso egoera estuan iragaten ari da Errumanian: azaroaren 24an izan zen hauteskunde presidentzialaren lehen itzulia, eta lehen tokian Georgescu agertu zen, harridura sorturik. Bigarren itzulia abenduaren 8an igaro behar zen, baina bi egun lehenago Konstituzio Auzitegiak lehen itzuliko emaitzak balio gabetu zituen eta bigarren itzulia bertan behera utzi. Arrazoa: inteligentzia zerbitzuen desklasifikatutako hainbat dokumenturen arabera, sare sozialen bidez –nagusiki TikTok– EBtik kanpoko estatu baten esku-hartze masiboa izan zela, lehen itzuliko emaitzen balioa zalantzakoezia bihurtu zuena, hauteskunde prozesu osoan eragin baitzuen.

Digihumanism elkarteak analizatu duenez, sare sozial horretako kontu susmagarri askok, modu koordinatuan, Georgescuren aldeko edukiak masiboki publikatzen zituzten haren aurkarien kanaletan, TikToken algoritmoak horiek bultzatzen zituen, eta eduki asko –antisemita, misogino edota homofoboa izanik ere– astebate gelditzen zen moderatu gabe; hori dena EBko zerbitzu digitalen legea (EU-DSA) urratuta.

**CETATE** lur gaineko urre meategia, bertan behera utzitakoa eta gaur egun Roşia Montană proiektuaren parte dena. Frank Timis enpresariak ustiatu nahi luke, Călin Georgescu Errumaniako presidentetzan ezarrita.



Errumaniako Justiziak Turkiaren laguntza eskatu du, Turkian IP helbideak eta Errusian email zerbitzuak dituen “troltegi” (*troll farm*) bat ikertzeko, *La Croix* aldizkariako Marine Leduc kazetariak jakinarazi duenez. TikToken Georgescuren promozioa egin duten 20.000 kontu baino gehiago kudeatzen omen dituzte “trol” horiek. Bestalde, *Snoop* Errumaniako hedabide independentearen ikerketa batek erakutsi duenez, Errusiarri loturiko komunikazio agentzia batek, *AdNow* izenekoa, esku-sartze nahiko sakona izan zuen, eta aspaldidanik aktiboa izan da Errumaniako hedabideetan eta sare sozialetan.

### NORK ORDAINDU?

Komunikazio estrategia ez zen Georgescuren kanpainaren alde uher bakarra, bertze bat diruztatzea zen. Georgescuk dio ez zuela gasturik izan, baina haren kanpainak gutienez 50 milioi euroko kostua izan zuela ziurtatu du Concordia konfederazio patronalak. Defentsa Nazionaleko Kontseilu gorenari TikTok enpresak aitortu dio Bogdan Peşchir izeneko laguntzaile batek milioi bat euro eman zuela, plataforman Georgescuren promoziorako.

Bertze laguntzaile bat Horaţiu Potra da. Marine Leduc azaldu duenez, Potrak sikarioak kontratatzen zituen

Afrikako hainbat herrialdetan, Kongoko Errepublika Demokratikoko Goma hiria erori arte. Sikario horiek meategiak zaintzeko kontratatzen zituen, meategi horietarik bat Frank Timis enpresari errumaniar-australiarrarena zela. Timisek interes berezia du Errumaniako Roşia Montană udalerriko urrearentzat. Proiektu hura nazio mailako mobilizazioen ondorioz bertan behera gelditu zen 2014an. Errumanian azken bi hamarkadotako mobilizazio handienetakoa izan zen. Errumaniako aztertzaileek aurkitu dute 2022an Potrak eskatu ziola Timisi Georgescuren kanpaina finantzatzea 20 eta 35 milioi dolar artean emanda, horren truke Georgescuk urre meategien ustiatzeko baimena berriz emanen zuelakoan, Leduc azaldu duenez.

Potra 20 urteko kartzela zigor mehatxupean da, eta Errumaniatik ihes egin du Poliziak atxilotu baino lehen. Bere etxean hainbat arma, granada, urre lingote eta 3,3 milioi dolar aurkitu dituzte. Prokuradoreak jakinarazi duenez, Georgescuk eta Potrak Errumania eze-gonkortzeko plan bat zuten, hauteskunde bertan behera uztearen ondotik. Hori dena aski korapilatsua ez balitz, AEBetako administrazio berriak presio egiten du maiatzean berrantolatuko diren hauteskundeetan Georgescu berriz aurkeztu dadin, nahiz eta oraingoz ez dirudien hala gertatuko denik.

Duela hamabi urte meatzaritza proiektua geldiarazteko herri mobilizazioetan, ezinbertzekoak izan ziren hedabide eta kazetari independenteak proiektuari buruzko informazio faltsuak aztertu eta salatzen. Gaur egun, berdin, ezinbertzekoak izaten ari dira hautagai “antisistema” horren atzeko diruztatze eta eragite sistema ilunak ezagutarazteko. ●

**ZINKUNEGI OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

f i

# Leire Amenabar

HARRERA-HERRIRANTZ



## DESEROSOTASUNIK BARIK EZ DA EZER ALDATUKO



Harrera-herri euskaldun nola izan gaitzkeen galdetu zion Leire Amenabarrek bere buruari eta parean zituenei iaz, Gasteizen, harrera-hizkuntzari buruzko jardunaldietan, eta galdera horrexetan sakontzeko elkartu gara berarekin hilabete batzuk geroago. Amenabarrek argi du “estrategikoa” dela komunitateen arteko elkarrizketak eta aliantzak lantzea, eta “orain” heldu behar zaiola.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

### **Psikologia ikasitakoa zara.**

Nahiko gaztetatik esango nuke –DBHko hirugarren maila ingurutik–, argi neukan psikologia ikasi nahi nuela. Eta zergatik? Uste dut denok buruan daukagun psikologo irudi horregatik. Gero, karrerari hasi nintzenean, ezetz erabaki nuen, ez nuela gura terapeuta izan.

### **Zer dela-eta?**

Ez dakit zergatik, baina errezelo bat sortu zitzaidan psikologoekiko.

### **Errezeloa diezu oraindik?**

Ez, gaur egun beharra daukat [barreak]. Baina karrerari gehien erakartzen ninduten irakasgaiak beti ziren psikologia sozialekoak: taldeen psikologia, harre-

manak ulertzeko era hori. Gero beste irakasgai bat egin nuen. Azken horretako irakaslea da gaur egun nire tutorea, eta harreman ona sortu genuen. Bide horretan *engantxatu* nintzen.

### **Baita masterra egin ere. Baina zer da psikologia soziala?**

Gauza pila bat izan daitezke. Harremanak aztertzen dira, baina talde batean edo komunitate batean ulertuta, edo taldeak zer eragin duen norbanakoan, baina elkarrekiko zera horretan betiere. Adibidez, gure departamentuan jendea bakardadea ikertzen ari da, baina bakardade hori egitura batean ulertuta, harreman-sare batean edo harreman-sare horren faltan. Gero, masterra egin nuen

egin behar delako, eta gainera master ofizial bat egin behar delako kasik. Psikologia sozialekoa zen gehien erakartzen ninduen: *Erakundeen Psikologia eta Esku-hartze Psikosoziala*, eta urte berdinean egin nituen EHUKoa eta Madrileko beste bat: osasun mentala indarkeria politikoko eta hondamendiko egoeretan. GAC (Grupo Acción Comunitaria) izeneko talde batek ematen du, eta, egia esan, oso interesantea izan zen. Gure unibertsitatean hitz egiten ez diren gatazka pilo bat irten ziren. Tortura landu genuen, indarkeria instituzionala eta politikoa. Gero, asko garapen agentzietarantz eta bideratutakoa zen, hondamendi bat gertatu denean hara joan eta zelan egin behar den lehen arreta hori. Baina oso





# Leire Amenabar Larrañaga

LARRABETZU, 1997



Euskal Herriko hizkuntza komunitate minorizatuen inguruan ari da doktorego tesia egiten, akulturazio-prozesuen eta biktimizazio narratiben jakintza arloak oinarri hartuta. Bereziki, euskal komunitatearen edo jendarte hartzailearen ikuspegitik ari da ikertzen, jatorri atzerritarreko hizkuntza komunitateekiko dituen akulturazio linguistikoko sinesmenak eta jarrerak aztertuz.

gauza *guapoak* ziren, eta oso jende interesantea ezagutu genuen.

## Master horretako ikaskideekin bertsolaritzari buruzko ikerketa bat landu zenuen.

Madrilera master hori egitera joandako euskaldunon artean egin genuen hori. Memoria historikoa eta bertsolaritzaren erresistentzia-funtzioa landu genituen. Aztertu genuen transmisioa zelan gertatu den belaunaldiz belaunaldi, eta elkarrizketatu genituen 18 urtetik hasita 70 eta piko urte bitartekoak, denak emakumeak; hori ere erabaki bat izan zen. Idatzizko elkarrizketak ziren, eta galdetzen genien ea zelan eragin dezakeen bertsolaritzak garaian-garaian, eta ea erresistentzia egiteko tresna bezala ulertzen zuten bertsolaritza, bai bertsozale moduan, bai gai-jartzaile moduan baita bertsolari moduan ere.

## Zuek bazenuten hipotesirik alde aurretik?

Esango nuke hipotesia zera zela, bertsolaritza badela erresistentziarako tresna, edo jendeak behintzat hala ikusten duela, baina ondorioa beste bat zen: galdetu beharko genukeela ea norentzat den, edo norentzat ez. Gero eztabaida hori atera zen, gaur egun presente dagoen diskurtso edo kritika, mikrofonoa daukagunean erresistentzia hori nola egiten den, eta zer zilegitasun daukazu segun eta zer lekutan jartzeko.

## Horren ostean tesiarekin hasi zinen. Zer zabilta ikertzen?

Ikertzen ari naiz Euskal Herrian jaiotakook zer bizipen, jarrera, diskurtso eta itxaropen ditugun komunitate migratuak gurean integratzeko -betiere hizkuntza(k) oinarri hartuta-, eta geuk ere zer ardura sentitzen dugun horrekiko, akulturazio-prozesuen teorian oinarrituta. Teoria horren arabera, integrazioak oreka bat behar du: komunitate migratuak zer jarrera dituen heldu den herri horretako kulturara asimilatzeke, baina era berean euren zein puntutaraino mantenduko duten, eta beste era batera, bertakook berdin, zer espero dugun komunitate migratuengandik eta geu ere zertarako prest gauden.

## Euskarari erreparatu diozu arretaz. Zein dira Euskal Herrian

## jaiotakoon espektatibak eta jarrerak zentzu horretan?

Komunitate migratuekin euskaraz hitz egin nahi dugu, baina, era berean, prest gaude geuk euren hizkuntzak ikasteko eta gure administrazioa eleantiz bihurtzeko. Galdera da ea zein hizkuntza ikasteko prest gauden: galdetzen nuenean ea prest gauden pertsona migratuek ekarritako hizkuntzak ikasteko, migrazioaren emari handiko herrialdeetako hizkuntzak ziren (arabiera, txinera, etab.) eta horiek ikasteko borondatea zein motibazioak eragiten duen aztertzea garrantzitsua dela ikusten dut.

## Ikerketan elkarrizketak egin dituzu?

Datu-bilketa bat egin dut. EAeri dago-kionez 589 pertsonaren datuak daukat: test erako galdetegi horietako bat bete dute. Bestalde, ez dut inoiz aipatu, baina ikerketa guztiak Kataluniako datuekin konparatzen ari naiz.

## Nolatan?

Katalunian beste 500 eta piko datu jaso ditut. Nik Euskal Herrian egin nahi dut tesia, eta hor badut konfliktua, ze ikerketa argitaratzeko lagin handiak behar dira, eta horregatik erabaki genuen bi komunitate linguistiko gutxitu konparatzea. Desberdintasunak igartzeko dira bien artean. Nahiz eta Kataluniako egoera ez dagoen onenean -esaten dutenez, hiztunak gutxitzen ari dira-, hizkuntza bera edo hizkuntzaren bizitasuna bermatuagoa dagoenez, Katalunian badaude alde batzuk gure egoerarekiko.

## Tesia Euskal Herri osoko datuekin egin nahi duzu.

Gaur egun, tesia artikuluka egin daiteke, hiru artikulua akademiko osatuta. Eta ni hala egiten nabil. Lehenengoa eginda daukat dagoeneko, bigarrena bukatzen nabil, eta espero dut laster bidaltzea norabait. Nik Euskal Herri osoko datuak erabili nahi ditut, zazpi lurraldeetakoak, eta badauzkat, baina euskararen egoera administratiboa edo egoera diglosikoa, tokian toki, ezberdina da. Orduan, datuen trataerak desberdina izan behar du. Eta biktimizazio-egoera desberdina da administrazio bakoitzean. Nik planteatzen dudanean esparru administratiboetan diskriminatuta gaudela linguistikoki, ez da berdina han edo hemen. Orduan



ez dakit nola planteatuko dudana nahi dut beste artikulu bat egin zazpi lurraldeak kontuan hartuta. Eta mugatik gertu dauden datuekin ere lan egin nahi nuke.

### **Datu pila bat daukazuzu, beraz. Zer egiten duzue horiekin?**

Nire ikerketak, momentuz, korrelazionalak dira: aldagaien arteko harremanak ikertzen ditut. Gaur egun egiten ari naizen horretan, adibidez, non identitate nazional-subalternoak (orain artean estatutik gabeko nazio gisa ezagutu direnak) eta globalak (munduko hiritarrak) konparatzen ditudan, identitate nazional-subalternoan altu puntuatzen dutenek uste dute komunitate migratuak euskarara asimilatu behar direla.

Prozesu horretan badago beste aldagai bat, bitartekari-lana egiten duena: mehatxu-pertzepzioa. Alegia, pertsona migratuak euskararekiko mehatxu gisa hautematen badira, asimilazio-harremana handitu egiten da. Hor badut barne gatazka bat, zeren akulturazio-teoriaren barruan esaten dugu oreka bat behar dela asimilatzearen eta mantentzearen artean, baina justu euskarara asimila-

“ tzerako bitartekari gisa jartzen dugu mehatxua, eta mehatxuek badaukate kutsu negatibo bat.

### **“Atzerritar**

**batek esaten zidan unibertsitatean beste eragile edo taldeekin elkartu gura zutenean eta asanbladak euskaraz zirela esatean, baztertuta sentitu zirela”**

### **Beste bitartekari bat jarri nahi zenuke?**

Horren inguruan eztabai-datu nahi nuke, behintzat. Integrazioa bada ideala, zergatik ari gara ulertzen euskarara asimilatzea mehatxu baten ondorio dela, eta ez zerbait positiboa?

### **Datuen analisia egiteaz gain, beste nolabait landu nahi zenuke gaia?**

Hor ere badut kontraesana: ikertzen nabil, eta gero kalean ez dut ezer egiten horren inguruan, eta nahiko nuke, baina ez diot nire buruari esan nahi derrigor egingo dudunik. Euskal Herrian Euskaraz-en euskarara harrera-hizkuntzaren talde nazional bat sortu da, eta hor sartu berri naiz. Momentuz ez da ezer egin, baina badaude ideia batzuk tokian toki komunitate guztien arteko elkarrizketa-guneak sortzeko, eta hor oso gustura egingo naiz.

### **Egia esan, nire galdera gehiago zen ea ikerketa kuantitatiboan ateratzen diren ondorioetatik ikerketa**

### **kualitatiboak-edo egiteko gogorik baduzun.**

Ahal bada bai. Dena den, orain egiten ari naizen artikuluetan –EAEko datuei buruzkoak–, ondorioak hain dira orokorrrak... Zaila da horrekin zeozer lurrekoa egitea.

### **Ikerketa zehatzagoak egin behar lirateke?**

Bai, eta errealitate bakoitzera moldatu. Eta, beste batzuetan ere esan dut, baina elkarrizketa gertatu behar da komunitateen artean, eta deseroso egon behar dugu, eta bi parteok egon behar dugu deseroso; denok. Ikuspegi intersektionalak ematen duen boteredunen eta desabantailadunen ikuspegi horretatik gertatu behar da eraldaketa eta elkar jagotea. Deserosotasunik barik ez da ezer aldatuko.

### **Besteak beste, paradigma-aldaketa bat behar dela esaten duzue. Zuretzat, zer ekarriko luke horrek?**

Kontua da hizkuntza asko bizi direla Euskal Herrian. EAEn, adibidez, 120tik gora dira, kalkuluaren arabera. Eta hizkuntza horien kaleko erabilera oso urria da: % 2,8 inguru. Eta gurea %12. Niretzako paradigma-aldaketa da aitortza bat egitea beste horiei, eta ikustea horrek guri zer kenduko digun eta zer eman-guri digun. Baina bereziki datuei begira: Euskal Herrian gaude, euskarara hemengo hizkuntza da, hemen bakarrik bizi da, eta beste gauza asko, baina etorkizunean gero eta jende gehiago izango da jatorri atzerritarrekoa. Xabier Aierdik egin duen estimazioagaz, 2050erako Euskal Herriko %40 izango da jatorri atzerritarrekoa. Paradigma-aldaketa hori eta aliantza hori egitea estrategikoa da, eta orain heldu behar zaio.

### **Argi daukazu elkarrizketa eta deserosotasuna direla bidea.**

Gaur egun bai. Bestalde, datu estatistikoekin lan egiten nabil, baina gero zure herrian edo zure hirian edo zure auzoan zer den egingarria eta zer ez, hori beste gauza bat da.

### **Halako esperientziarik edo elkarrizketarik gertatzen ari den lekurik ezagutzen duzue?**

Hezkuntzaren esparruan, gehienbat. Zaldibia erreferente bat da, adibidez. Euskararen erabilerearen kezkatik hasi ziren, guraso elkartetik, esango nuke, eta egin dituzte aurrerapauso batzuk. Zaldibia-

ren ostean, Zestoa bihurtu zen erreferente. Labakoak ere [Iruñea] badabilta: komunitate migratuak eta euskaldunak, ez dakit hilean zenbat aldiz, baina ekimen diferenteen bitartez, elkartzen dira, eta hizkuntzak lantzen dituzte, beste gauza askoren artean, eurenak eta euskara. Badaude ekimen txikiak.

**Niri Hernaniko Kulturarteko Plaza Feminista etorri zait burura. Euskara irakasten dute boluntario-sare baten bidez.**

Oreretako Udalean, komunitate arabeak edo amazigak, ez dakit zehazki zeinek, udal instalazioaren bat eskatu zuen euren hizkuntzak irakasteko, eta udal euskaltegia erabiltzen dute. Eta agian hau esatea basatzetan sartzea da, baina udal euskaltegiaren kontzeptua bera ere zalantzan jarri beharko genuke? Segun ze udaletan, ez dakit, paradigma-aldaketa hori da, eta uste dut eztabaida gertatu behar dela.

**Harrera-herriaz mintzatu zinen Gasteizen. Oraingoz, harrera-herria ez, herri hartzailea omen gara.**

Ez dakit egokiena naizen hori esateko, baina uste dut kritika bat behintzat egin behar diogula gure buruari. Ez

dugu harremanik izaten komunitate migratuekin. Nire datuen arabera, bertan jaiotakoek %30ak bakarrik ditu harremanak jatorri atzeritarra daukaten pertsonekin. Orduan, hori kontuan hartuta, gure lagun-harremanetan, gure familietan, gure eskoletan –agian orain beste errealitate bat egongo da, baina, bueno, eskola batzuetan beharbada ez–, ea benetan garen harrera-herri edo hartzaile huts. Zintzoak eta errespetuz, baina hartzaile.

**Hasieran pertsona migratuen jarrerak ere ikertzeko asmoa zenukan, baina alde batera utzi zenuen gero.**

Komunitate migratuko kideekin elkarriketak egiten hasi nintzen, euskararekiko zer jarrera zuten ikusi nahi nuelako, eta oso bizipen eta diskurtso diferenteak ziren. Neure burua ikusten nuen jarrera horiek paperera pasatzen, eta oso deseroso nengoen, ez nuen balttere zilegitasunik sentitzen, eta orduan prozesuan zehar kendu egin nuen zati



hori, eta bertan jaiotakoekin bakarrik egitea erabaki nuen.

**Bertan jaiotakoek %30ak bakarrik ditu harremanak jatorri atzeritarra daukaten pertsonekin”**

**Tesian landuko ez duzun arren, elkarriketa horietako zerbait aipatuko zenuke?**

Denetik zegoen. Adibidez, elkarriketatatu nuen neska feminista bat, jatorri atzeritarrekoa eta arrazializatua, eta hark esaten zidan

unibertsitatean beste eragile edo taldeekin elkartu gura zutenean eta asanbladak euskaraz zirela esatean, baztertuta sentitu zirela. Min horiek hor daude. Bakoitzak adierazi du bere beharra, baina ez dago transmisio bat, ez dago hurrengo pauso bat. Uste dut hurrengo pauso hori gertatu barik ez dugula elkar ulertuko. Eta bi aldekoen deserosotasuna gertatu behar da. Zeren gu eroso gaude gure horretan, baina beste aldea ere, hizkuntzari begira, erdal hiztun moduan, ez dakit guztiz eroso baina neurri batean eroso egon daiteke. Egoera ulertuta, eta nire pribilegio guztiekin, baina uste dut baietz, beharrezkoa dela denok deseroso egotea, eta errekonozimendu bat egitea elkarri. ●

Zurrunbiloa

Zergatik egin du okerrera gazteen osasun mentalak?

Erantzunak

[zurrunbiloa.eus](http://zurrunbiloa.eus)

elhuyar  
ezagutuz aldatzea

DANOBATGROUP



## Lankidetzaren aldeko aldarria

**U**nibertsitateko ikasleen artean, maiz topatzen ditugu beste lurraldetakoak ere, bereziki gradu ondorengo ikasketetan. Topaketa horiek badira errealitate berriak ezagutzeko bide, baita besteak entzun eta besteez ikasteko parada ere. Garapenerako lankidetzari loturiko gaiak izan ohi dituz hizpide graduondoko batean, eta Kubako lankidetzaren inguruko gogoeta egiteko aukera izan dugu bertako ikasle batekin. Kubarena kasu bitxia da lankidetzari dagokionean (ere), laguntza-aren hartzaile izateaz gain, emaile ere badelako (Garapenerako Laguntza Bartzordeak emaile gisa onartzen ez duen arren). AEBen aldetik blokeo ekonomikoa jasaten badu ere, paradoxikoki, beste hainbat lurraldetan lankidetzaren ekimenak martxan jarri izan ditu azken hamarkadotan, bereziki osasun eta hezkuntza sektoreetan.

Aitzitik, azken asteotan, Nazioarteko Garapen Agentziarik nagusienetakoa den USAIDen deuseztapena iragarri duten berriak heldu zaizkigu Trump presidentearen administrazioetik; “agentziaren heriotza” heldu dela ere iritzi du Musk ultra aberatsak. Irrigarri bezain beldurgarria den tonu eta erregistroari jarraiki, eskuin muturrak planotik at daramatza giza eskubideak, baita demokrazia bera ere. Lehen lerro eta bakarrena dakartza nazioarteko harremanetan errege diren logikak, enpresa handienak, hain zuzen ere. Lotsarik gabe plazaratu

Nazioartean aberastasuna birbanatzeko zerga-sistema bidezkoagoa ezarri ezean, nazioarteko lankidetzaren dugu horretarako tresna bakanetako bat. Ez akatsik gabea, baina ia bakarra

dute Palestinako genozidioaren gainean eraiki nahi den *Riviera* eremu turistikoa, ziurrenik ere, nazioarteko elite aberatsarentzat. Diskurtso horiek guztiak ez dira berriak, baina zinez etsigarria da nazioarteko komunitatetik ikusten ari garen isiltasuna; bereziki iparraldeko erakundeetatik.

Garapenerako lankidetzak izandako hamarkadetako ibilbidearen ostean, bada zertan hausnartu. Beste hainbat artean, pobrezien erroetan dauden giltzarrietan baino, ondorioetan enfokaturako jarduerak egitea leporatu izan zaio, baita Mendebaldeko balioak eta garapena ulertzeko modua inposatzea ere, askotan, tokiko ohiturak zapuztuta. Eta ezin uka, hainbeste urteren ostean, desparekotasunak ez direla gutxitu, areagotu baizik. Horiek guztiak bestelako



IRATI LABAIEN EGIGUREN  
EHU-KO IRAKASLE ETA  
IKERTZAILEA

arrazioen ondorio ere badirela dakigun arren, laguntzaren unadura deitu izan zaion sentipena ere sortu izan da.

Kritikak kritika, eta lankidetzak hobetzeko marjina duela sinetsita ere, bere errebindikazioaren garrantzia azpimarratzea ezinbestekoa dela uste dut. Eskuinak, eta geroz eta modu lotsagabeagoan eskuin muturrak, behin eta berriro planteatzen duten ereduak porrot egin du. Merkatuak ez du autoerregulazio gaitasunik, esku ikusezina bailitzan. Nazioartean aberastasuna birbanatzeko zerga-sistema bidezkoagoa ezarri ezean, nazioarteko lankidetzaren dugu horretarako tresna bakanetako bat. Ez akatsik gabea, baina ia bakarra.

Kezkaz bizi dut horrek guztiak bestelako lankidetzaren agentzia, erakunde eta egituretan izan dezakeen eragina. Sentipena dut, eskuina globalki batzeaz gain, ideologikoki hartzen ari den espazio fisiko eta digitala geroz eta handiagoa dena. Botere erakustaldi horri aurre egitea zaila ikusten badugu ere, ideologia gizatiarrago eta justuago baten aldeko aldarria herritik sortuko den itxaropena dut. Herritik, eta herriarentzat. Ezin baitira ahaztu gure herri txiki honetan ere lau hamarkada luzez eraikitako elkarlan sare sendoak. Garapenerako lankidetzaren dirutan kalkulatu ohi diren laguntza fluxuak baino gehiago da; lankidetzaren, zubia, sarea, hurkoarekiko zaintza eta bizitzarekiko eta lurraiekiko erantzukizun partekatua ere bai baita. ●

# Elle-aren biya



MALORES ETXEBERRIA

Lagun asko sumatu dut kezkatuta euskaldun gero eta gutxiagok ahoskatzen duelako *elle*-a. Haur eta gazte gehienek bezala, heldu askok ere galdu du hots hori ahoskatzeko gaitasuna, idatzian ere nahasteraino. Paretan itsatsitako kartel batean irakurri berri dugu: altxorren *biya*. Usu entzuten diegu he-dabide nagusietako esatariei konponbide bat “*zaya*” dela, halako ekipo “*mayaz*” jaitsi dela... eta jada horrek anekdota baino zerbait gehiago dirudi.

Izango dira gure artean ere gaia aztertu dutenak, baina niri pista interesgarria herrialde katalanetatik iritsi zait, Julià Guillamon idazleak *El habla bleada* (libreki, *Hizkera txolina*) izeneko artikuluan. Hariari tiraka, 2023an Vilaweb-ek Gabriel Bibiloni-ri egindako elkarrizketa topatu dut. Hizkuntzalaria da, Balear Uharteetako Unibertsitateko irakasle izana, orain erretretan, eta *El parlar bleada, una anàlisi de l'esfondrament de la fonètica* (*Parlar bleada*, fonetika endekatzeko baten analisia) izeneko liburua idatzia du, katalanaren fonetikan zer nolako galerak gertatzen ari diren aztertzen dituen. Mallorcan egindako lan mardul baten emaitzak jasotzen ditu, labor bezain zorrotz landuta.

Katalana gaztelaniaren fonetikarekin mintzatzeko moldeari esaten diote *bleda* hitz egitea. 1960-70eko hamarkadetan abiatutako prozesu horren ezaugarri nagusietako bat da katalanez (euskaraz ere bai) garrantzitsua den *ll* hotsa *y* hotsarekin ordezkatzeko (*yeismoa* deitua).

Bibilonik dio hirietako (Bartzelona, Valentzia, Palma...) klase sozial altuko emakumeen joera batetik abiatu zela ordezkapen prozesua. “*Finago*” hitz egin nahi zuten gaztelaniaz, katalan azentua



MAIDER LETURIAGA

ezkutatu. Imitazioz, lagunarteak eta eskolak orokortu dute. Gaztelaniaz katalan azentuarekin hitz egiten zuten haurrei burla egiten zitzaaien beren hizkera “*de poble*” zelakoan (gurean “*cashero*”). Bibilonik dio katalan hiztun askoren nahia izan dela gaztelaniaz katalan azenturik gabe hitz egitea eta, behin hori lortuta, denbora kontua besterik ez dela katalanez ere gaztelaniaren fonetikarekin hitz egitea. Eta horixe da gertatu dena. Gaur egun gurasoak ez dira gai *elle* hori ahoskatu eta haurrei transmititzeko, he-dabideetako esatari gehienak eta maisu-maistrak ere ez... nola ikasi haur batek

berez ere ahoskatzeko erraza ez den hots hori?

Hizkuntzak biziak dira eta eten-gabeko eboluzioan daude, elkarren ondoan dauden hizkuntzen arteko interferentziak normalak direla dio Bibilonik, betiere berdintasun egoeran gertatzen badira. Baina hizkuntza bat nagusi denean, hura delako gehien erabiltzen dena eta presentzia handiena duena, interferentziak beti norabide berean gertatzen dira, hizkuntza nagusitik menpekora, eta hori ez da eboluzioa, subordinazio politiko-soziologikoaren ondorioa baizik. Eta joera hori zuzendu ezean, menpeko hizkuntzaren fonetika erabat ordezkatu izan daiteke. Zehaztasun gehiagora ekarrita, komunitate batean %50etik gora baldin badira ama-hizkuntza eta hizkuntza nagusitzat gaztelania dutenak, nahiz eta gehienek jakin katalana, erabateko ordezkapen fonetiko gerta daiteke, Bibiloniren esanetan.

Burla eta lotsa kontuetara itzulita, nork bere azentua edukitzea munduko gauzarik normalena da: ingelesa ikasi duen katalan edo gaztelania hiztun batek ez du bere azentua galtzen, ezta katalana ikasi duen gaztelania hiztun batek ere. Zergatik lotsatu, orduan, gaztelaniaz ikasi eta katalan azentuarekin mintzatzeko dena?

Zuzentzeko aukerez galdetuta, lan nekeza dela aitortzen du Bibilonik, esfortzu handia eskatzen duelako, baina egin beharrekoa, batez ere eredu ezartzen dutenen aldetik: he-dabideetako esatariak, irakasleak, etab. Vilawebeko artikuluko lotura batean *elle*-a ahoskatzeko ikasteko aholkuak eta metodoa ematen dira. ●

# Bolo-bolo



**MIKEL OTERO**  
DIPUTATUA

**B**olo-bolo dabil energia berriztagarrien hedapenaren inguruko eztabaida. Sarri askotan, iritsi den proiektu zaparrada desordenatuak eragindako artegatasunak bultzatuta, albiste zein iritzi-artikulu mordoaz gain, hitzaldiak, eztabaidak, mahai inguruak, bideo emanaldiak eta abar ugaritu dira, herri txikietan zein hirietan. Foro horietatik ingeniariak, geografoak, hirigileak, biologoak, ekonomialariak... denetik pasatzen ari dira. Futboleant gertatu ohi den moduan, guztiok dugu entrenatzaile bat gure baitan, zer arraio!

Saiatzen naiz eztabaida horiei jarraipena egiten, izan presentzialki, izan ostean eskegitzen diren bideoak ikusita. Eta aitortu behar dut harridura ere sortzen didala foro gehienetan zein gutxi hitz egiten den euskal sistema energetikoaren inguruan: kanpo menpekotasunaren (>%85), fosilen pisuaren (>%80) edo CO2 isurien inguruan. Energiari buruz gauzak entzun bai, baina zalantzak ditut ea saio horietara joaten ari den herritar mordoak (asko joaten baitira), gure egoera eta erronka energetikoen inguruko taxuzko informazioak jasotzen ote duten. Brotxa lodi asko azterketa finak behar diren lekuan.

Ez da hori duela gutxi Gorbeialdeko Herri Unibertsitateak Gasteizen antolatua zuen saioaren kasua. Bi azterketa

zientifiko aurkeztu ziren bertan, bata Gasteizko estalkien potentzial fotovoltaikoarena, eta bestea gure aztarna energetikoaren ingurukoa. Horrez gain, beste hitzaldi bat, ongizatearen eta horri loturiko behar energetikoaren ingurukoa.

Lehen azterketak honakoa ondorioztatzen zuen: Gasteizko estalki urbano-industrial guztiak muturreraino aprobetxatuta, gasteiztar bakoitzeko 2 MWh inguru lortu daitezke urtean. Bigarrenak, aldiz, erabiltzen dugun energia kopurua aztertzen du, eta emaitzak dio euskaldun bakoitzeko 40 MWh-tik gora erabiltzen dugula urtean. Berdin(tsu) gizon-emakume, hiritar-herritar, gazte-adindu. Gutxiago behartsua edo atzerri-tarra bazara. Beste modu batean esanda, gure estalki guztiak energetikoki aprobetxatuko bagenitu, erabiltzen dugun energiaren %5 ere ez genuke lortuko. Zerbitzu publikoak mantentzeko ere ez. Zer esanik ez industria edo garraioa.

Agian horregatik, giza garapen maila altua mantentzeko zenbat energia behar den aztertzeko ikerketen berri eman zenean, entzuleriatik norbaitek hitz hartu eta, ironia ezkutatu ezinik, egoeraren laburpen ezin hobea egin zuen esaldi bakar batean: “Agian, giza garapen indizea neurtu ordez, hipokrisia indizea neurtzen hasi beharko genuke”. To! ●

# Ikusezinak



**ARANTZA GUTIERREZ**  
EHU-KO IRAKASLEA

**M**artxoaren lehenengo lanegunarekin batera, komunikabideetan azalduko ez diren aldaketak etorri dira EHU-n. Azken Lan Publikoko Eskaintzaren ondorioz, ehunka langile-arlo tekniko eta administrazio zerbitzutakoak orain arte okupatzen zuten lanpostutik atera eta beste destino batera mugitu dira. Horietako asko, ezegonkortasunean urte luzez egon eta gero, behin betiko lanpostura joan dira; beste batzuk, berriz, aurrekoek desplazatu dituzte, eta zenbait kalera joan dira edota lan postsetara itzuli dira, berriro deitzeko zain.

Agurrak eta ongi-etorriak ugari izan dira azken egunotan atezaintza, sail,

bulego eta zerbitzu teknikoetan, baita hutsuneak ere, momentuz inork bete ez dituen lanpostuak geratu baitira. Ez dut uste erakunde eroriko denik, baina dagoeneko falta batzuk nabariak dira. Izan ere, badaude erakundeak irudikatzen ditugunean inork ikusten ez dituen pertsona horiek, funtzionamendu egokia bermatzen dutenak oharkabean; falta direnean soilik nabarmentzen dugu beraien falta, arrakalak agertzen baitira. Izan daitezten hitz hauek horientzako guztientzako omenaldia, baita egindako lana esker-tzeko ere eta beraien lekukoa hartuko dutenei harrera egiteko ere. ●

# Gudaren jauntxoak



MATI ITURRALDE  
MEDIKUA

**1** 986. urtean Espainiako Estatuak NATO n jarraitzearen aurkako botoa eman zuen euskal gizarteak. Denborak ematen duen perspektibak oraindik ez du azaldu zeintzuk izan ziren gizartearen arrazoi sakonak gerra erakundean parte hartzeari uko egiteko.

Felipe González-en PSOEn gobernuak jarrera aldaketa izan zuen, *OTAN de entrada No* (NATO hasiera batean Ez) lelotik, *Vota en interés de España, SI-ra* (Bozkatu Espainiako interesagatik, BAI). Ondorioz, haustura sortu zen Espainiako ezkerrean, eta ez da inoiz konpondu.

Ziurrenik, Euskal Herrian botoa NATOren aurkako izatearen arrazoietakoa bat izan zen ez hain urruneko gerra baten memoria, non suntsiketak eta basakeriak ideario kolektiboan jarraitzen zuten, eta nolabait ere, ETaren borroka armatuak Espainiako armadaren beraren aurka jarraitzen zuela, bizitako gerren jarraipen moduko bat.

Felipe Gonzálezek erreferendumean galdera nahasi bat jarri zuen boto-paperean, NATOko agintariekin negoziatutako terminoen laburpenarekin, eta boto emaile asko nahastu zituen. Gainera, hitzarmena gerora ez zuten errespe-

Heriotza-boterearen ordena berri honetan, NATOko jauntxoak eztabaidatzen ari dira zenbat diru bideratu behar duten kapitalismoak esleitzen dien boterea gauzatzeko

tatu. Adostasun makur horrekin gerra erakunde baten menpe bizi izan gara herrialde kideetako herritarren kontrolik gabe, eta bloke komunistaren eta kapitalistaren arteko gatazka 1991n amaitu zen AEBen garaipen globalarekin... orain arte, Biden edo Trumpekin, berdin dio.

Baina hegemonia kapitalistaren goseak ez du mugarik, eta Gerra Hotzaren amaieraz geroztik gerra berriak elikatu dira desjabetutako edo zuzenean suntsitutako herrialdeetan. Helburu baka-

rra armamentu industriaren negozioak ematen dizkien etekinak etengabe handitzea da, milioika pertsonaren bizitzan kontura bada ere.

52 herrialdeetan gerran bizi dira, belaunaldiz belaunaldi. Gerra horietako batzuk ia ikusezinak dira, eta beste batzuk, berriz, ia zuzenean transmitituak; baina guztietan gizatasun-printzipioa desagertu egin da. Erasandako herriak ez dira eskubideen subjektu, eta ez dago gerra kodeen aplikaziorik. Gizateriaren zati baztergarrikoak direlako, besterik gabe. Nazioarteko ordena pertsonen eta herrien eskubideetatik at kokatzen da.

Eta heriotza-boterearen mundu ordena berri honetan, NATOko jauntxoak eztabaidatzen ari dira zenbat diru bideratu behar duten kapitalismoak esleitzen dien boterea gauzatzeko. Gudaren jaun eta NATOren idazkari nagusi Mark Rutte-k sakrifizioak eskatu ditu, hala nola pentsioetan, osasunean eta berdintasun sistemetan murrizketak egitea, defentsan gastua handitzeko eta Europan epe luzerako segurtasuna bermatzeko.

Espainiako Gobernurik aurrerakoienaren bazkideek ziur aski kalkulagailua aterata dute... ez dut ezer onik espero. ●



Martxoak 10-26 / [errigora.eus](http://errigora.eus)

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan

EGIN  
ESKAERA  
ORAIN! >>>





Babeslea:  ARGIA

Pirritx,  
Porrotx  
eta  
Marimotots

Itziar Ituño  Gure Zirkua

 Go!azeneko lagunak

 Tapia eta Leturia  Gozategi

Eñaut Elorrieta  Olatz Salvador

Kai Nakai  Amets Aranguren

Ines Osinaga  Aitor Gorosabel

Oinkari  Bonberenea

Erraldoiak  Dragqueenak

 Bertsolariak  La Pulga

ETA GEHIAGO!

Erosi sarrerak:  
NIKEREMAITZAITUT.EUS

maite   
zaitut

FESTA   
ERRALDOIA 

Bizkaia Arena - BEC!

Maiatzak 3, 2025

# KANAKY HERRIA

## 2024: deskolonizaziorako aukera oro sinesgaitz bihurtu zuen urtea

Urte bat beteko da laster Pazifikoko Kanaky herriko matxinada eta estatu-errepresiotik. Maiatzaren 14an gogortu zen giroa, kanaken bizian –baita deskolonizazio prozesuan ere– eraginen lukeen lege proiektu bat bozkatu zutelako Paristik. Hamar hilabete pasa direla, zertan da Frantziaren menpe segitzen duen artxipelagoko giroa?

Esperantzarik badea, 1980. hamarkadako giro odoltsuan bezala berriz ere hildakoak, preso sartuak eta Poliziak jazarturikoak dituzten honetan? Azken bost urteetan ez bezala, badirudi elkarrizketa eta entzuketa jarrera batean dela Frantziako Gobernua. Zer espero daiteke bapateko aldaketa horretatik? Fidatu daitezke kolonizatuak?

### JENOFA BERHOKOIRIGOIN

**E**sperantzarik ez ukaitea baino beltzagoa da beraiena: ez dute ezer jakin nahi. 40 urte pasa dituzte elkarrizketaren bidean eta nahikoa dute. Argi dute: Kanaky independentea orain eta baldintzarik gabe!". Hori dio *Mediapart*-en lan egiten duen Ellen Salvi kazetariak. Azken aldikoz, iazko urte bukaeran egon zen Salvi Frantziaren menpe segitzen duen Kanaky herrian, hain justu, iazko maiatzean artxipelagoa bortizki inarrosi zuten matxinaden eta estatu-errepresioaren biharamunak bertatik eta bertakoen bizipenetatik sentitzeko. 2024 urtea dramatikoa izan da artxipelagoan, eta 1980. hamarkadan goia

jo zuen giro errepresibo eta koloniala berriz bizitu behar izan dute kanakek, zaharrenei iraganeko traumak berpiztuta eta gazteenek gorputzean sentituta orain arte arbasoen kontakizunetan kabitzen zen indarkeria basa. Kazetariak ez badaki ere azken asteetan elkarrizketa berriz abiatu izanak itxaropena berpiztu ote duen, ilusio handirik ez du senditu bertakoekin ukandako azken trukaketetan.

Baina, oraingoz, erran daiteke dosierra kudeatzeko ardura duen Manuel Valls Itsasoz Haraindiko ministro berria entzunketa jarrerarekin hurbildu zaiela, eta hori txalotu egin du FLNKS Askatasun Nazionalerako Fronte Sozia-

lista Kanakak. Azken urteetan jarrera aldaketa bideratu dutelako Paristik, argiki loialisten –independentziaren aurkakoen– aldean kokatuta. Horrela aztertu du azken urteetako jarrera Benoît Trépied antropologoak: "Emmanuel Macronen eta bere Itsasoz Haraindiko ministro izandako Sébastien Lecornuren eta Gérard Darmaninen jarrerari amaiera eman dio Manuel Vallsek. 2020ko urrian egin zen bigarren autodeterminaziorako erreferendumaren biharamunean denek argi ikusi zuten artxipelagoan independentzia eskuragarri zeukatela. Horregatik Frantziako Estatu bere neutralitatetik ateratzeko erabakia hartu zuten gizon horiek, loia-



lazko maiatzaren 14an piztu ziren matxinadak, Pariseren inposaketek eta egoera sozioekonomiko kaskarrak horretara bultzaturik. Erantzun gisa, errepresio bortitza bideratu zien Frantziako Gobernuak.

## 1853, irailaren 24a



1853ko irailaren 24an kolonizatu zuen artxipelagoa Napoleon III.ak, hastapen batean Ozeano Barean ere Frantziaren presentzia bermatzeko –Ingalaterra han zegoen Zeelanda Berria eta Australia bere eginik–. 1863an hartuko zuen "kartzela" izaera 1897ra arte, presoak bidalita –21.000 preso deportatu zituzten–. Horrela hasi zuen Frantziak biztanleria bidezko kolonizazioa. 1887an ezarri zuten Indigenaren Kodea, kanaken lurrak lapurtzeko, erreserbetan pilotzeko, lan behartuak inposatzeko eta jabetza zein zirkulazio eskubideak mugatzeko. 1944 eta 1947ko legeek eman zituen bukaera mailakatze horri. 1946an pasa zen "kolonia" izatetik "itsasoz haraindiko lurralde" izatera, baina ez du sekula bere burujabetza berreskuratu. Biztanleria bidezko ordezkapena bultzatzen segitu izan du Parisek eta gaur egun %41,2 dira kanakak eta europarrak %24. Inguruko Wallis eta Futuna komunitatekoak dira %8,3 eta beste hainbeste dira jatorriz inguruko irletakoak (Tahiti, Indonesia, Vietnam, Vanuatu...). 1853az geroztik erregulariki izan dira askatasuna berreskuratzeko kanaken altxamenduak. Azkena, iazko maiatzean.

listekin aliatzeko gisan". Azken urteetan hiru erabaki esanguratsuk dute Frantziaren lerrokatze hori argira ekarri.

Bata, hirugarren erreferenduma 2021eko abenduan antolatu izana, hots, COVID19aren testuinguruan, nahiz eta kanakak horrelakorik ez zuten nahi, hildakoen dolu garaia eta babes neurriak errespetatzeko. 2022ko irailera atzeratzea galdetu zuten alderdi independentistek, baina ez zitzairen eskaera kontuan hartu. Alderdi independentistek ez parte-hartzeko deia luzaturik, %56koa izan zen abstentzioa eta hori horrela, %96,5ak zuen independentziaren kontra egin. Alde handia egon zen, aitzineko erreferendumetatik: 2018an %19koa izan zen abstentzioa eta ezetzak %56,6 jaso zuen, eta 2020an, %14,3koa izan zen abstentzioa eta independentziaren kontrako botoak %53 bildu zuen–. Orduz geroztik, deskolonizazioari buruzko Numeako Akordioak finkatu hiru erreferendumak bideratuak direla diote loialistek, autodeterminazioarako aukera orori bidea mozteko gisa. Nola ez, kanakak diote hirugarren galdeketa emaitza ez dela errepresentatiboa.

Bestetik, independentziaren aurkari sutsua den Sonia Backès loialista gobernura sarrarazi zuen 2022ko udan Macronek, herritartasunerako estatu-idazkari gisa. Kolpe eta mespretxu latza izan zen independentistentzat. Azkenik, hauteskunde erroldaren moldaketa dakarren lege-proiektua dago. Gainditzea dakarren ur tantaren gisa, horrek zituen iazko maiatzeko matxinadak piztu.

### MATIGNONEKO ETA NUMEAKO AKORDIOEN ONDORENGO BAREALDI HAUSKORRA

Alta, azken 30 urteetan giro lasaiagoa zuten artxipelagoan. 1980. hamarkadan gerra zibilaren itxura hartua zuen gatazkari bukaera eman nahian, izenpetu zituzten erreferentziazko izaten segitzen duten bi hitzarmen: 1988ko ekainaren 26an Matignoneko Akordioa eta handik hamar urtera, 1998ko maiatzaren 5eko Numeako Akordioa. Deskolonizazio prozesua gauzatzeko bide-orria dakarte, autodeterminazioari buruzko erreferendumen antolaketa finkaturik. Horregatik, "Historian atzera-pauso" gisa oroitzen dute guztiek 2024. urtea.

Orotara, iazko maiatzaz geroztik hamaika kanak hil dituzte poliziek edota herritar loialisten miliziek –bi jendarmeek ere dute bizia galdu– eta dozenaka dituzte kolpatu edota preso sartu –batzuk 16.000 kilometrorara diren metropoliko presondegietan–. Orotara, 1.520 lagunez gora atxilotu zituzten maiatzaren 14tik uztaila bitartean. Militarrek bidali zituzten eta maiatzaren 16tik 28ra iraun zuen larrialdi-egoerak. Etxeratze-agindua, berriz, abendura arte inposatu zitzairen. Tiktok sare soziala ere debekatu zitzairen.

2023ko azaroan egituraturiko CCAT Terrenoko Ekintzen Koordinazioarako Taldearekin bat eginez, manifestazioak zein bide blokeoak errepikatu zituzten ezkereskuin. Modu autonomoan, batzuek ekintzak gogortu zituzten maiatzaren 14tik aitzina, sabotajeak, dendetan lapurretak eta bestelako ekintza zuzenak gehituta. Independentzia helburu, sindikatu, al-

derdi eta kolektiboen artean osaturiko CCAT koordinazioa Paristik zetorren lege proiektuari bidea mozteko antolatu zen.

Kanakyko hauteskunde errolda moldatzearen alde bozkatu zutelako Paristik diputatuek eta senatuek, hain justu, Numeako Akordioek zekartenari bukaera emanik. Orain arte, 1998 urtean erroldaturikoek eta beraien ondorengoek bozkatu dezakete tokiko hauteskundeetan, baina lege moldaketak dakar azken hamar urteetan bertan bizi direnentzako bozka eskubidea. Emaitzetan eraginen luke, kanaken pisua proportzionalki ttipituz –hots, independentisten ahotsa gutxituta, dela tokiko instituzioetan zein etorri daitekeen autodeterminazioari buruzko erreferendumean–. Militarri erantzutera zihoala, horrela laburbildu zuen zegoena Lehen ministro ohi Gérard Darmaninek: "CCAT mafia da, bortizkeria zabaldu nahi duena". Azkenean, sute, gas negar eragile, tiro, sabotaje eta sarekaden artean zirela, atzera egin zuen iazko urriaren 1ean Parisek, "lurralde honek bizi duen krisiaren erdian eta alderdien arteko elkarrizketa lasaitasunean berriz abiarazteko asmoz".

CCATko bozeramaile Christian Tein preso daukate, Mulhousen (Frantzia metropolian). Ekainaren 19an atxilotu zuten, beste hamar aktibistarekin batera, eta Numeako jendarmerian 96 orduz galdekatu ondoan, nehor agurtu gabe, zuzenean hegazkin batean sartu eta hegaldi osoa eskuburdinak jantzita pasa ondoren sartu zuten 16.000 kilometrotara degoen presondegian. Auzirik ez da izan oraindik, eta preso segitzen du, metropolian isolaturiko beste zazpi



THEO ROUBY

2020az geroztik loialisten aldeko erabakiak hartzen aritu da Frantziako Gobernuak. Jarrera aldaketa sendi da 2025 hastapen honetan, eta ikusteke dago zer ekarriko duen. Beraien aldetik, Parisi presio handia bideratzen dabilta loialistak.

independentisten gisara. Urtarrilaren 28an, baina, jaso zuten albiste ona: Kasazio Gorteak onartu du afera Numeatik Parisera bidaltzea, Numeako auzitegiak ez zuelakoan Justiziaren independentzia eta inpartzialtasuna bermatzen. Ondokoa du xede François Roux abokatuak: "Espero dezagun 2024ko maiatzeko gertaeren benetako izaera ulertzea magistratuek. Kaledoniak duen arazo bakarra independentzia ezarena da. Artxipelagoaren historiari begiratzerakoan begi-bistakoa da guztiaren errepikapena. Historia errepikatzeari utzi eta dagoenari begiratu behar diogu: kolonizaturiko herritarren independentzia gosea, eta Nazio Batuek behin eta berriz galdetutako kolonizazioaren bukaera". Herri

Independentziarik ez izatearen kexuari gehitu zitzaizkien etxerik, lanik edota jakirik ez ukateak ondorioztatu kexuak

kolonizatua delako Kanaky, eta autodeterminazio ezak dakarren zapalketa eguneroko ogi dutelako.

### "ZURIAK AUTOZ, KANAKAK OINEZ"

"Ezberdintasun sozialak begi-bistakoak dira, bereziki Numean [hiriburuan]. Ton-

tor batera igo, hiriarri begiratu eta agerian duzu: iparreko kartierretan *squatt*-ak dituzu, txabolak eta hegoko kartierretan etxe ederrak, pizsinarekin. Are agerikoagoa da komunitateka zatitua izanik: zuriak aberatsak eta kanakak pobreak. Zuriak autoz dabilta eta kanakak oinez. Nabarmena da. Jendetzatze-kolonia bat izanik, Europatik etorritakoei abantaila fiskalak bideratzen zaizkie bertan kokatu daitezen, baina lekukoek, auzo popularrretan ala tributan direnek, ez dute sosik, ez dago sosik beraiantzat", dio *Mediapart*-eko kazetariak.

Parisek bideratu nahi zuen lege aldaketa testuinguru horretan zegoen, eta guztien kexuak batu ziren CCATren ekinzetan eta inguruko sabotajeetan. Inde-



pendentziarik ez izatearen keXuari gehitu zitzaizkien etxerik, lanik edota jakirik ez ukaiteak ondorioztatu keXuak. Denak ez ziren independentziaren alde karrikan, baina denak ziren herri kolonizatu izateak dakarrenagatik karrikan.

Estatistikek ere azaleratzen dituzte komunitateen araberako diskriminazioak. Kanaka da pobrezian direnen %70a; kanaken %20 langabezian da -artxipelagoan %12koa delarik langabezia tasa-; eta lana ukanik ere, gutxien ordainduriko enpleguetan dabil kanaken %80. Pobrezia bizian dira, eta ondoko auzoan dituzte jatorriz nagusiki Frantziatik etorritakoak, aberats eta pribilegiadun. "Zapalkuntza harreman handia" dagoela dio *Mediapart*-eko kazetariak, eta orain "mendeku gosea" areagotu dela dio. Gogoan du nolatan enpresaburu zuri batek ondokoa partekatu zion aza-roan: "Lan eske etorriko zaizkit [kanakak], baina ez du balio, hori baino lehen barkamen eske etorri beharko zaizkit".

Matxinaden garaian "bizilagun erneak" izena jarri eta beraien etxeak eta eremu pribatuak babesteko taldeak osatu zituzten zuri batzuek. Armaturiko miliziak ere bazituzten. Ofizialki, lau kanakak zuten bizia galdu zibilek tirokatuta.

"Bi zibilizazio", "batek sistema politiko feudala, besteak demokratikoa", "ekonomikoki harreman kapitalista batek, komunitarioa besteak"... hots, "olioa eta ura bezala, elkartu ezin daitezkeen bi mundu", Backès loialistaren hitzetan. Horregatik zuen biak bereizteko proposamena luzatu iazko uztailaren 14an, Frantziaren egun nazionalaren kari. Hots, bere arabera apartheid antolaketa litzateke soluzioa. Egun boterean diren loialistak aitzinekoak baino bortitzagoak direla dio *Mediapart*-eko kazetariak: "Aitzinekoak ez ziren independentziaren alde, baina soluzioa nahi zuten, gogoeta eraman nahi zuten, ez ziren gaurkoen gisara erabateko ukapenean". Kontua da probintzia

## Manuel Vallsen deiarri erantzunda, elkarrizketan segituko dutela jakinarazi dute loialistek zein independentistek

mailako azken bozketetan lekua hartu dietela muturreko loialistek moderatuei.

### AZKENEAN, ELKARRIZKETA

Azken asteetakoa da Parisen jarrera aldaketa, eta ikusteke dago zer nolako iraunkortasuna ukanen duen. Baina, aspaldian ez bezala, aterabide politikoa adosteko jarrera du gobernuak. Otsailaren 22tik martxoaren 1era egon da artxipelagoan Valls, loialistekin zein independentistekin bilduta, eta berriz etorriko zaie martxoaren 21etik 25era.

Haatik, loialistek postura gogorrean segitzen dute: "Ez dugu sekula konpromiso politikorik onartuko, ezta independentziara edo independentzia-elkartera [estatu burujabea, hitzarmen bidez beste estatu batekilako lankidetzak mantentzen dituen] garamatzen biderik", Nicolas Metzdorf diputatu loialistaren hitzetan. Funtsean, aurkako manifestazio batekin egin zioten harrera ehunka loialistak, egun batzuk lehenago kanakak izendatzeko erabilitako "Lehen herri" terminoa erabili zuelako Vallsek ere. Orduz geroztik, "herri autoktonoa" terminoa erabiltzen dabil. Hala ere, historia oroitarazi eta tinko erantzun die ministroak, denon harridurarako: "Hori [Lehen herririk] ez dagoela erratea errebisionista izatea da. Lehen Arteen museorako sarrera eskainiko dizut. (...) Konstituzioa irakurri dut. Demokrazia errespetatu behar da. Konstituzioa ere

errespetatzen dut. Eta Konstituzioak dakar Numeako Akordioa, nahi edo ez".

Hala ere, elkarrizketan segituko dutela jakitera eman dute loialistek. Gauza bera independentisten aldetik, baina baldintza gisa jarrita metropolian preso daukaten FLNKs-ko presidente Christian Tein elkarrizketa-mahaian egotea. NBERen deskolonizaziorako batzar bereziari ere bertan parte hartzeko gomita helarazi diotela jakitera eman du alderdi independentistak. NBE 1986ko abenduaren 2an kokatu zen Kanaky herriaren "autodeterminazioaren eta independentziaren alde". Urtarrilean buruturiko 44. kongresuan erabaki zuen negoziaketei berriz lotzea FLNKs-ko, baina beti ere baldintza batzuen pean: egutegi bat findu dute, bukaeran, beranduenez 2025eko irailaren 24an, 'Kanakyko hitzarmena' sinatzeko asmoz. Akordio horrek "Kanakyk burujabetza osoa benetan bereganatzeko data" finkatu beharko luke.

Etorkizun hurbilak erranen digu Vallsek lortuko ote duen postura antonomikoetan diren bi aldeen arteko adostasuna. Euskal Herritik ikusita arraroa da Valls batek horrelako jarrera hartzea, dela Katalunia, Korsika zein Euskal Herria, herri zapalduak ez aitortzeko daukan jarrera ezaguna zaigulako. Doi bat harriturik begiratzen dio *Mediapart*-eko kazetariak ere, baina ondokoa azpimarratu du: "Denborarekin ondokoa ikasi dut: Kaledoniako dosierrari begiratzeko jarrera duen oro adimentsuago bihurtzen da, seriozki begiratzeko jarrera ukanez gero. Berdin du eskuinekoa ala ezkerrekoa izan. Arraroa da, baina horrela da. Hori gertatu zen Michel Rocard Lehen ministro ohiarekin [Matignoneko Akordioaren bultzatzailea] eta Edouard Phillipearekin [2020. urtera arte Kanakyko gaia jarraitu zuen eta estatua "indarrez pasa nahi izana" kritikatu zuen]. Orduz geroztik ez da horrela, baina bali-teke Vallsekin ere hori gertatzea". ●

**ARABAKO BERTSO KUADRILLA ARTEKO A 2025**

**3 FINALERDIA**

**MARTXOAK 15 LARUNBATA AMURRIO**

**MENDIKO ESKOLAN**

**14:00ETAN BAZKARIA**

**17:00ETAN SAIOA**

**JAIKOAAREN GEME-ALABAK**

**BERTSOZOPUELA**

**ALTUBEPEKOAK**

Bazkaria 23euro eta 12 euro (18 urtetik beherakoek) martxoaren 12a baino lehen, [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) webgunean.

[www.bertsosare.eus/araba](http://www.bertsosare.eus/araba)

araba alava, LAS, Lankidetzak, Vital, Uztape, artapan, ARGIA

# MICKAEL FORREST

## Arbasoek ziotena errepikatzen ari gara: gu ez gara frantsesak



Kanakyko Gobernuko kide gisa edo Parisekilako elkarrizketa-mahaiko kide gisa hitz egin zezakeen, baina argi utzi digu FLNKS Askatasun Nazionalerako Fronte Sozialista Kanakaren kanpo harremanen idazkari gisa mintzatuko zitzaigula. Hitz bakoitzak duelako bere pisua eta ondorena, eta helburu bera izanik ere, ez direlako baitezpada hitz berak erabiltzen ardura batean zein bestean.

### JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

#### **Urrun gelditzen zaigu Kanaky herria eta Parisko komunikabide handietatik jaso ohi dugu hango berri. Nola zarete?**

Azken urtea zinez gogorra izan zaigu: hildako andana ukan dugu, baita diskriminazio sozial, politiko zein ekonomiko anitz ere. Horrek segitzen du eta presentzia militarra ere handia da. Gure aldetik, elkarrizketari berriz lotzeko erabakia hartu genuen urte hastapenean burutu FLNKS-ren 44. kongresuan.

#### **Ezinbestekotzat duzue nazioartearen babesa.**

Herri ttipia gara, 300.000 herritar gara 18.000 kilometro koadroko irla batean. Baina nazioartearen babesa dugu: 1986ko abenduaren 2az geroztik deskolonizatu beharreko herrien zerrendan sartuak gara. Zentzu horretan Frantziaren betebeharra da Kanaky herriaren deskolonizazioa. Horren alde doan ebazpen bat bozkatzeko dute urtero NBERen biltzar nagusian. Oroitarazi nahi dut

berritzailea eta modernoa den deskolonizazio prozesua dakarren [1998ko] Numeako Akordioak hor segitzen duela.

#### **Hizketakide izan beharraren ardura presente dauka Frantziako Gobernuak? Badirudi azken urteetan aldatu egin dela bere jarrera.**

Ez dago irakurketa bakarra. Hasteko, François Bayrouren gobernuak elkarrizketari lotu izana azpimarratzekoa da. Manuel Valls Itsasoz Haraindiko ministroa elkarrizketari lotu zaio, auzia mahai gainean jarri du eta dirudienez presarik gabe erantzuteko jarrerarekin dago. Aitzineko Itsasoz Haraindiko ministroarekin elkarrizketa faltsu batean ginen. Kontuan hartu behar da gobernuak gehiago erlatiboa duela, zentsura mozioei aurre egin behar diela, eta horrek ez diela bidea errazten. Horregatik dugu nazioarteko zuzenbidea lehen lerroan jartzen, subiranotasun osora heltzeko bidea markatzen digulako. Mundu ordena berrian kokatu nahi dugu, geopoliti-

koki lerroak mugituz doaz, eta inportantea da gu ere hor kokatzea. Herri ttipia izanik ere, gure ahotsa gure identitateetik entzunarazteko eskubidea dugulako.

#### **Nola doaz negoziazioak?**

Behar den denbora hartzeko jarrera bada, eta hori baikorra da. Numeako Akordioa zalantzan jartzeko borondatearik ez da eta horrek garrantzia handia du guretzat. Aterabide politiko bat atzemateko nahikaria ere sendi da. Hamar egun daramatzagu hemen [otsailaren erditan egindako elkarrizketa da], datorren astean Valls etorriko zaigu gurera. Argi gelditu dadila hala ere: elkarrizketari lotu gara, baina ez dugu mugagabeen negoziatuko.

**Berantetik 2025eko irailaren 24an izenpetu beharko litzatekeen "Kanakyko Akordioa" duzue helmuga, zeinak zehaztuko lukeen "burujabetasun osora heltzeko data".** Historiak bidalitako keinu bati lotua da



data –eta badakit euskaldunak ere historiaren keinuei lotuak zaretela–: 2023ko irailaren 24an bete zen gure lurren lapurketaren 170. urtemuga, eta hain justu, egun horretan lortu genuen gure lehen senataria [Robert Xowie]. Diputatuak ukandakoak ginen, baina 36 urtez ordezkariak gabe egon ondoren, bat lortu genuen iazko uztailan [Emmanuel Tjibaou]. Hori guztia baikorra da. Negarretan gara, sufrikario anitz daukagu, baina lurraren eta arbasoen izpirituari segi, jakin izan dugu erantzuten. Horregatik ere itzuli gara negoziazio mahaira. Demokrazia mintzatu da, parte-hartze handia izan da eta independentistak atera gara garaile, 10.000 botoren aldearekin. 2024an Frantziako Estatua bortxaz pasatzen saiatu zen eta herriak bozketa- ren bidez erantzun zion.

### **Aspaldian ez bezala, preso politikoak dituzue, batzuk metropolian.**

Iazko maiatzaren geroztik 80 eta 100 pertsona artean dituzte preso sartu. 1988az geroztik [Matignoneko Akordioa] ez genuela preso politikorik. Egoera ezkorra da, eta denbora luzea daramagu horrela, astuna da. Horregatik negoziaketek lotzeko ardura bideratua izan zaigu. Horregatik ere izendatu genuen Mulhousen [metropolian] giltzapeturik duten Christian Tein FLNKSko presidente. Frantziako Estatuari mezu argia bideratu nahi izan diogu: egin dezakezue munduko kolonia

guztietan betidanik egin duzuen, baina guk aurkituko ditugu bide berriak, auto-determinazio eskubidea aldarrikatzeko, Frantziako Estatuak jarritako oztopoak argira ekartzeko eta nazioartean gure lekua egiteko.

### **Etxetik 16.000 kilometrotara, nola dira metropolian dauden presoak?**

Lortzen dute aitzina egiten, baina zaila da, 16.000 kilometroetara daudelako. Nola ez, hurbilekoen bitartek bermatzeak kostu handia du, biziki garesti delako hemendik hara joatea. Klima ere ezberdina da, biziki hotz da. Aspaldi ez dugunez preso politikorik, nahi ala ez, doi bat ahantzia genuen presoengatik inguruko elkartasun horren antolaketa –juridikoa, finantzariora, emozionala, morala–. Baina bagabiltza.

Hobengabetasun presuntziorik ez da egon, juridikoki dosierra hutsa da. Horietariko bi baldintzapeko askatasunean dira [baina metropolian]. Epaiketaren beha gara. Garaipen ttipia ukan dugu berriki: dosierra Parisko auzitegira bideratua izan da, Numeako magistratuak estatuaren aldekoak zirela frogatu delako. Ez dezagun ahantz kanak gazte batzuk hil direla, bala bana buruan, eta ez dutela sekulan aurkitu hiltzailea.

### **Iazko matxinada independentzia gosetik zetorren, edo gazterien ondoez sozial eta ekonomikotik?**

Nahasketa da. 2023ko azarotik 2024ko apirilera manifestazio baketsuak egin genituen, baina ez ginen entzunak izan. Ezberdintasun sozioekonomiko handiak badaude. Gazteriak bizitzeko baldintzak beharko lituzke, baina ez dauzka. Aberastasuna bakar batzuen eskuetan gelditzen da. Hori guztia egun batez zartatu da, eta herria asaldatu da. Gazteriak ozen erran nahi izan du bere lekua bada jendartean.

### **Gazteria independentista da ala segida lotzeko nekeziak dituzue?**

Gazteriak bere lekua badu, eta formazioak bideratzen gabiltza. Maiatzaren 13ko mugimenduak baikorki eragin du independentismoaren aldeko dinamikan, eta interes eta inplikazio gehiago bada gaur egun.

### **Geroari begira, itxaropentsu zara?**

Gauza berak errepikatzeaz nekatuta gara, baina herri oso baten esperantza daukagu. Gure arbasoek zioten gauza bera erraten gabiltza: gu ez gara frantsesak, kolonizatu gintuzten eta burujabetasunaren eskubidea aitortu behar zaigu. Lokalki hori galdatzen gabiltza, baita nazioarte mailan ere. Negoziazioetan parte-hartzea galdetu diogu NBERi.

### **Ze erantzun jaso duzue?**

Ezin dizut gehiagorik zehaztu, doi bat sekretupekoa delako. ●





# Esku odoltsuen matxinada

Esku odoltsu bat sinbolo gisa erabilia, iazko azaro bukaeratik ustelkeriaren aurkako mobilizazio erraldoiak egiten ari dira Serbian, “blokada” izenpean, azken garaietan Europa zaharrean ikusitako handienak. Asanblearioak, masiboak, ideologiarik gabekoak... Bertatik, ARGIAk mugimendu espontaneo honen inguruko nondik norakoak ezagutu ditu.

 IBAI TREBIÑO

**B**elgradeko Despota Stefana hiribidean barrena, autobusak ustekabeko geldialdia egin du. Ohiko bilakatu den erritualari jarraituta, ikasleek hiribidea moztu dute. Bidaiariak autobusetik jaitsi eta blokeatutako eremua gaingintzen saiatu dira, beste autobus bat hartzeko asmoz eta bidea jarraitu ahal izateko. Kexa gutxi entzuten zaie ordea, eta elkartasun handia erakutsi diete manifestariei: “Ikasleek arrazoi dute, herrialde ustel batean bizi gara eta borrokatu egin behar da hau aldatzeko”, dio haserre andre batek.

Bidegurutzea gaingitu eta hurrengo autobusa hartu dute bidaiariek, protesta egitetik datozenekin bat eginda. Tartean unibertsitatean irakasle diharduten emakume talde bat aurkitu dugu. Hain zuzen, hori da protesten ezaugarri nagusietako bat: edozein adin eta generoko ikasle zein irakasle biltzen dituela, elkarlanak eta elkartasunak mugituta. “Denok helburu beraren alde borrokatzen ari gara, justua denaren alde”, esan

digu irakasle taldean doan Jovanak.

Protestak Serbia iparraldeko Novi Sad hirian izandako istripuak eragin dituela azaldu digu Jovanak. Serbia osora hedatzen ari dira jadanik masiboak diren protestak. Azaroaren 1ean, Vojvodina eskualdeko hiriburu horretako tren geltokian markesina bat jauzi zen eta hamabost pertsona hil zituen. 2021ean Serbiako Gobernuak geltokia berritzeko eta handitzeko plana onartu eta gero – herrialdeko tren-azpiegitura berritzeko eta modernizatzeko planen barruan –, berehala lanei ekin zion Txinako enpresa-partzuergo batek. 2024 erdialdean, lanak amaitu eta egitura berria inauguratu zuten, baina hilabete gutxira ez-beharra gertatu zen. Inork ez du oraindik istripuaren erantzukizunik hartu eta nagusiki horrek ekarri du protesta uholdea herrialdera.

Markesinaren aldaketa adostutako lanen barruan zegoen ala ez, ez dago argi norena den istripuaren erantzukizun zuzena. Serbiar gehienek baina, go-

bernuari leporatzen diote gertatutakoa. Horregatik, protestak zilegitzat jotzen dituzte gehienek.

Testuinguru horretan, Serbiako presidente Aleksandar Vucicek erantzukizun politiko eta penala eskatu du istripuagatik, baina protestei dagokienez, haien atzean “atzerriko agenteak” daudela dio. 2000. urtean Slobodan Milošević presidente ohiaren aurkako protestek aurrekari arriskutsua ezarri zuten herrialdean eta nabari da zama hori presente dagoela oraindik.

Otpor mugimendua (erresistentzia serbokroazieraz) Serbiako gazte mugimendu politikoa izan zen, Milošević boteretik kanporatzeko kanpaina bizia garatu zuen. Unibertsitatearen aurkako lege errepresiboek erantzuteko aitzakiapean sortu zen mugimendua. AEBekin harremana zuten, eta lotura zuten AEBek diruz lagundutako zenbait GKE eta erakunderekin. Gene Sharpek diseinatutako “erresistentzia baketsua” estrategia-aren aitzindaritzat jotzen da erakundea.



J. NAVARRO

“Ez dago paralelismorik Otpor mugimenduaren eta gure mugimenduaren artean. Ez dugu loturarik Serbiako edo atzerriko beste alderdi politiko edo talde aktibistekin, eta inoiz ez dugu harremanik izango”, adierazi diote ARGIAri Filsofiako fakultateko bozeramaileek. Gainera, azpimarratu dute, “ez gara ari protestan presidentearen aurka, Otporrek egin bezala. Ustelkeriaren kontra eta zuzenbide estatuaren alde gaude, gizarte justuago eta hobea nahi dugu”. Egungo politikariak “ideologiatik haratago soilik interesengatik” mugitzen direla diote. “Mafiosoak dira, alderdietan sartzen dira negoziokoak egiteko. Serbiako politikak funtzionatzen du Italiako Ndrangheta bezala –Siziliako mafia edo Napoliko Camorraren nolabaiteko parekidea Calabria eskualdean–, leku guztietan daude sartuta”.

Ondoan dauden Filologiako ikasleek ere antzerako iritzia dute Otporrekiko, eta orduko mobilizazioak eta gaur egungoak parekatzen dituztenak “fede txarrarekin” jokatzeko ari direla uste dute. “Egungo protestak bestelako testuin-

guru batean garatzen ari direlako eta garaia guztiz ezberdinak direlako”, dio ikasleen arduradunetarikoa den Dunja Tasevskik.

### **BORROKA PAUSO BAT HARATAGO**

Belgradeko zentro-zentroan daude Filsofia zein Filologiako fakultateak eta azaro bukaeratik blokeatuta eta itxita daude biak, herrialdeko gainontzeko unibertsitateak bezala, Blokada izeneko ekimenaren barruan. Bigarren hezkuntzako ikastetxeak ere, gehienak blokeatuta daude eta bide mozketak eta beste ekimen batzuk egiten ari dira zentroetan. Lehen hezkuntza derrigorrezkoa da eta lanuzte partzialak egiten ari dira, nahiz eta haietariko asko erabat itxita dauden, Belgradeko kasu. Gero eta gehiago dira mobilizazioekin bat egiten ari direnak. Haur-eskolak momentuz ez dute protestekin bat egin, baina aurreikusita dago datozen asteetan mugimenduak egotea. Askoren iritziz, haur-eskolen erabakian egon daiteke protesten arrakastaren gakoa, grebak kolapso handiagoa ekar lezakeelako.

Aldarrikapenei dagokienez, ondoko lauk dira ikasleen proposamenak: Fisikaltzari exijitzen diote markesinaren eraikuntzarekin lotutako informazioa argitara dezala, ikasleen eta herritarren aurkako oinarririk gabeko akusazio guztiak erretira ditzaka, protestetan manifestarietara eraso egin dietenen aurkako akusazioak aurkez ditzala, eta azkenik, Ogasun Ministerioari eskatzen diote fakultateetarako aurrekontuak %20 igo ditzala. Eskakizunak bete arte borrokan jarraituko dutela diote ikasleek, eta gobernuaren dimisioa nahi dute. Halere, arazoa “sistema dela” ohartarazten dute, politikarietatik haratago.


“Eta gero zer?” da serbiar gehienek haien buruari egiten dioten galdera. Protesten ondoren pasatuko denak kezka piztu baitu Serbian. Eskoletatik haratago, jendarteak babestuta, protestek indar handia hartu dute Serbiako hiri handienetan eta Serbiako historia modernoan izan diren handienak dira dagoeneko. Maila nazionalako deialdiei ere ekin diete. Horrelako lehen mobilizazioa Belgraden burutu zuten abenduaren



AP



GETTY IMAGES



ALEKSA STANKOVIC

22an, milaka eta milaka pertsonak bat egin zuten ikasleen aldarrikapenekin. Urtarrilaren 27an, Belgraden ere bai, autopista blokeatu zuten 24 orduz eta egoera kaotikoa eragin zuten hiriburuan. Azken asteetan, mobilizazio nazionalak egin dituzte herrialdeko beste hiru hiri nagusienetan: Novi Sad-en, non otsailaren 1ean hiru zubiak blokeatu zituzten; Kragujevac-en, Serbiako hiriburu ohian; eta azkena Nis-en, martxoaren 1ean. Greba orokorra ere egin dute ikasleek, beste sektore batzuen babesarekin.

### “IDEOLOGIARIK GABEKO” MUGIMENDUA

Azken mobilizazioaren harira, Kragujevacen egon da ARGIA eta hango Zuzenbide fakultateko ikasleekin egoteko aukera izan du. “Ideologiarik ez dugu” diote, “ezta liderrik ere”. “Kolektiboaren indarrean sinisten dugu –adibidez ikasleen izenean hitz egiten dugu eta ez norbanako gisa - . Horrek borroka indartzen duela uste dugu”. Lidergoen kontra agertzen dira, mesfidantzak mugituta; zenbait alderdik eta sindikatuk mobilizazioak berenganatu nahi dituztela diote. Antolakuntza mailari dagokionez, erabaki asanblearioak hartzen dituztela azaldu digute, eta hori da hain justu mobilizazioen ezaugarri nagusia: asanblearismoa. Ekimen nazionalak Whatsapp zein Telegram taldeen bidez antolatzen dituzte, bereziki maila nazionalako koordinazioa egiteko. Beste ezaugarrien artean, adierazgarria da manifestaldietan agertzen ari den sinbologia: Europar Batasuneko banderarik ez, bai ordea Serbiako banderak. Identitate nazionalaren errebindikazioari garrantzi handia ematen diote, abertzaletasuna go-raipatuta. Europak Serbiako jendarteari erakutsitako mespretxu eta presioak errefusatzeko dituztela nabari da.

Badira mobilizazioen aurrean konfiantza txikia erakusten dutenak ere, bereziki ezkerreko mugimendu batzuen artean. “Ideologiarik gabeko ikasle liberalak dira”, dio Nikolak, ezkerreko mugimendu abertzale bateko militanteak. “Ikasleek diote ez dela borroka politikoa. Zer da orduan?”, dio ironiaz. Ikasle zein mugimendu politikoen artean eztabaida handia pizten ari da, ohi legez, borrokaren zilegitasunaren inguruan. Arrazoi geopolitikoak edota kanpoko esku-hartzea tartean egon daitezkeela uste dutenak badira, injerentziaren mamua beti dagoelako presente Serbian. ●

# AUTOBIOGRAFIA LINGUISTIKOAK ESKOLAN EUSKARA HAUSPOTZEKO

Eskolako zenbait gurasok euskalduntzeko egindako ahalegina ikusarazi, eta hezkuntza komunitatean euskararen aldeko jarrerak piztu. Helburu horiekin bultzatu du Autobiografia Linguistikoak ekimena Ramon Bajo ikastetxeko Basartea gurasoen elkarteak, Gasteizko Alde Zaharrean. Pozik daude testigantzek eskolan izan duten eraginarekin eta uste dute beste hezkuntza zentro eta espazio askotan errepikatze moduko ekimena dela. Baina kezka ere hitz egin dute euskarak eskoletan eta parketan duen tokiaz.

 ZIGOR OLABARRIA OLEGA

**L**ourdes Uribarri eta Itziar Ruiz de Larrea 60ko hamarkadaren hondarretan elkar ezagutu zuten eskolan, nerabe, artean euskara debekatuta zegoela. Ruiz de Larreak euskara irakasteko eskatu zion Uribarriri, eta honek hamar hitzeko zerrendak pasatzen zizkion. Beren seme-alabei euskara eman zieten, eta hamarnaka urteren ostean Ramon Bajo ikastetxearen atean topatu dira berriz ere, nor bere ilobaren bila. “Poz handia da ikustea haien hizkuntza euskara dela, uste dut nire aletxoak jarri dudala eta harro nago”.

Hafsa Tahir aljeriarra euskaltegian hasi zen euskalduntzen, eta enplegua lortzean online ikastera pasa zen. Ruba Hassan siriarrak uste zuen egonaldi motza egingo zuela gure herrian 2014an Gasteiz zapaldu zuenean, eta halere hasieratik erabaki zuen euskara ikastea. “Hemengo gizartearen parte izateko euskara klabea da”.

Anabel eta Agustí Castelló sorterritik heldu ziren Gasteizera, katalanez hitz egiten zuten han, eta euskaldunak dira hemen. “Gu ere poztu egiten gara kanpotik datozenak gure hizkuntza ikasten dutenean”.

Ainara Sánchez eta Juan Otero Madri-

letik heldu ziren Gasteizera. Hasieratik izan zuten argi euskaldunduko zirela, “errespetuagatik”, Alemanian alemana ikasi zuten modu berean. “Guretzako zaila zen jendea beti gure erruz euskaratik erdarara pasatu behar izatea”.

Ruben Sánchez gasteiztarrari errebeldia senak eta “mundu oso bat” gozatzeko irrikak eman zioten gaztetan euskalduntzeko indarra. “Euskararen arazoa da denok dakigula gazteleraz”.

Amancay Villalba eta Zuriñe Zelaia heldutan euskaldundu ziren, eta seme-alabei euskara emateko erabakiagatik aldatu zituzten beren etxeetan hizkuntza ohiturak. “[ez euskaldunak] Animateko nuke gutako bakoitza altxor horren zaindari izatera”.

## KEINU TXIKIAK EUSKARA HANDITZEKO

Hezkuntza komunitateko kide horien autobiografia linguistikoak 4-8 minutu arteko bideo laburretan jaso dituztela azaldu digu gurasoen elkarteko euskara batzordeko kide Nagore Amondarainek. Biografia, aukera eta egoera pertsonal oso ezberdinetatik abiatzen dira bideoen protagonistak, baina gauza bat dute komunean: euskararen aldeko

apustua egin izana. *Keinu txikiek egiten dute hizkuntza bat handi*, erabili dute lelo gisa.

Astelehen goizetan eta asteazken eguerditan zabaldu zituzten sare sozialetan bideoak hiru astez, gurasoek umeak eskolara eraman aurretik. “Harrera oso polita izan zuten, ikusmin handia sortu zen, jendeari entzuten zenion, ‘Ea nortzuk diren hurrengoak!’, gure artean dauden istorioak ezagutzeko kuriositatea piztu zen”, gogoratu du Amondarainek.

## BIDEOAK PARTEKATZETIK EUSKALTEGIA SORTZERA

Ekimenarekin hainbat helburu zituztela dio Basarteako kideak. Hasteko, “pertsona batzuek egin dituzten apustuak eta ahaleginak balioan jarri eta ikusarazi. Egunero elkartzen gara eskolaren atarian, eta ez dakigu, esaterako, ondoko umearen gurasoa lanean ari zen bitartean euskaldundu zela goizez edo gaez ikasita”.

Bigarren helburu nagusia zen “barruan zer edo zer mugitzea” beste guraso batzuei: “Honek egin badu, eta baldintza hauetan, zergatik ez nik?”. Ere horretan ere eman dute fruiturik autobiografia linguistikoek. “AEKrekin hitz egin genuen, eta euskaltegi bat eskaini



genuen eskolan bertan, ahalik eta erraztasun handienak emanda”. Eskola komunitateko bederatziguraso eta amona bat ari dira euskara ikasten astez aste, 15:00etan hasi eta 16:15etan haurrak jaso aurretik.

“Batzuk dena alde izan dugu, euskaraz jaio eta hazi gara, baina hauek heroioak dira”, dio Amondarainek autobiografia linguistikoen protagonistez edo euskaltegian izena eman dutenez. “[Iñaki] Iurrebasok dioena, meritua horiek dute, erraztasunik ez dutenek, euskaraz alfabetatu baina zailtasunik dituztenek eta halere euskara lehenesten dutenek...”.

## EUSKALDUNON JARREREZ

Ramon Bajo ikastetxeko guraso ez ezik Bigarren Hezkuntzako irakasle ere bada Amondarain, eta batetik zein bestetik begiratuta kezkaz hitz egin digu euskarak bizi duen egoeraz.

Euskaldunengan jarri du fokua, “oso normalizatuta” ikusten dituen hainbat jarrerara ekarrita. Bere esanetan, eskolan ohikoa bilakatu da ikasleak irakasleei gazteleraz egitea, irakasleek hori ekiditeko ahaleginik egin gabe. Baita erdarazko euskarrien erabilera ere. “Youtubeko tutorialak, dokumentalak... duela urte batzuk hori egin aurretik birritan pentsatzen zen”, dio. Parkean antzeko jarrerak ikusten ditu zabaldua euskal-

dunen artean, alegia, haurrek gurasoei gazteleraz hitz egitea eta gurasoek hori erabat onartzea.

“Askatasunaren izenean sinetsi dugu iraultzailea dela mugarik ez jartzea, eta ez ditugu ondorioak neurtzen, ez gara ohartzen hori normalizatuta hizkuntza hegemonikoa indartu eta euskara are gehiago txikiagotzen dugula”, dio, minnez. “Gure haurrak, euskara etxetik dakartenak, gazteleraz aritzen badira, nola euskaldunduko dira erdaldunak eta bereziki kanpotik etorri direnak? Zertarako balioko die euskarak?”.

## GAZTELANIA APARTATU EUSKARARI TOKIA EGITEKO

Autobiografia linguistikoen ekimeneko bi pasarte azpimarratu ditu Amondarainek. Bata, Madriletik eta Valentziatik heldutako gurasoekin errepikatu zitzaiona bideoak grabatu aurretik: “Eskaini genien gazteleraz egitea, eta haiek ezetz, edo euskara eta gaztelania tartekatzea bestela, eta ezetz”. Bestea, Siritatik etorritako Rubak adierazitakoa: “Bideoan dio guraso euskaldunek euskaraz hitz egin baliote, lehenago ikasiko lukeela”. Ondorioa atera du: “Haiek oso argi dute, eta besteok?”.

“Gaztelania pixka bat apartatu beharra dago euskarari tokia egiteko, bata hizkuntza hegemonikoa delako eta bes-

tea txikitua”, defendatu du guraso eta irakasleak. Paralelismoa egin du beste botere harreman ardatz batekin: “Feminismoak irakatsi digu beharrezkoa dela gizonezkoak erdigunetik apartatzea beste identitate batzuek bisibilitatea irabazteko”.

## TXIKITIK ERAGIN

Horiek denak gai eta eztabaida arantzatsu bihurtu direla dio, “deserosoak” zaizkigula eta “ezinegona” sortzen dutela. “Baina arazo bat dugu”, jarraitu du, eta “beldurrak kendu eta gauzei izena jarri” beharra defendatu du.

Euskararen aldeko borrokan gurasoek eta irakasleek “eskutik” joan behar dutela dio guraso eta irakasleak, bereziki Haur eta Lehen Hezkuntzan. “Haurrek gelan, parkean eta etxean jasotzen dituzten mezuek koherentzia bat izan behar dute”.

Baikortasunez itxi du solasaldia: “Al-daketak egitea eta euskarari tokia egitea errazago da komunitate txikietan. Guraso elkartearen bileretan, esaterako, guraso bakoitzak nahi duen hizkuntzan hitz egiten du, baina euskara da ardatza eta xuxurlariak daude behar dituenentzako. Normaltasun osoz bizi da”. Gaur egun normala ez den normaltasun hori eraikitzeke aletxoak izan dira autobiografia linguistikoak. ●



# Cristina de Tena

## “Kostarik kosta loditasuna desagerrarazi nahi duen mugimendu sozial bat dago”

Pertsona lodiek lodiak izateagatik bizi izan duten eta bizi duten indarkeriaren inguruan teorizatzeke espazio bat sortzea du helburu *‘Nadie hablará de nosotras’* podcastak. Cristina de Tena (Madril, 1990) eta Lara Gil (Fuenlabrada, Espainia, 1999) aktibista lodiek urteak daramatzate lodifobiaz hausnartzen, umorea eta kritikotasuna ardatz. Egindako ibilbideaz mintzatu da De Tena. Nafarroan izanen dira martxoan.

 OLAIA L. GARAIALDE  NADIE HABLARÁ DE NOSOTRAS

**L**agunartekoa, proaktiboa eta jakin-min handikoa da De Tena. Izugarri gustuko ditu gauza berriak probatzea eta komunikazioa: “Mundua ulertzeko eta elkar ulertzeko modu bat da komunikazioa”. Gilekin bikote polita egiten duela uste du, biek partekatzen dutelako komunikazioarekiko maitasuna: “Gure abiapuntua da pertsonala politikoa dela. Ni pertsonaletik abiatzen naiz gehiago eta Lara teorikotik. Hala ere, urteekin elkarrengana hurbildu eta oreka aurkitu dugu”.

Biek gustuko ditu gauza berriak egitea eta jolastea. Hasieran, probatzen ari baziren ere, euren lehenengo saioa entzun ostean lodifobiaz hitz egiteko beharra zegoela ikusi zuten: “Orain dela gutxi arte, gaztelaniaz ez zen asko hitz egiten lodifobiaren inguruan. Gainera, ez genuen hitz egiteko espaziorik”. 2021eko azaroan hasi ziren podcastarekin, eta lehenengo saiotik gai ugari landu dituzte; hala nola lotsa, erotika,

“Asko kontzientziatu behar da ulertarazteko lodiak ez garela erradikatu beharreko arazo bat”

indarkeria medikoa, familia eta feminismoa. Horrez gain, hitzaldiak ematen dituzte eta *Nadie hablará de nosotras*. *Un show musical* emanaldia egiten dute. Martxoaren 29an, Oteitzan izanen dira taula gainean.

Mugimendu lodiak azken urteetan diskurtsiboki egindako ibilbidean sakondu du, eta nabarmendu du hasieran hitzaldietako mezua “leunagoa” zela: “Nabarmentzen genuen pertsona lodiok bizitzeko eskubidea dugula eta errespetua merezi dugula”. Orain aldiz, mugimendu lodiak urratsak eman eta diskurtso “punkagoa” duela uste du: “Ez dizut esango ez iraintzeko edo errespetatzeko. Seinalatuko zaitut eta esango dizut indarkeriaz jokatzan ari zarela

nire kontra, nire gorputza suntsitzen saiatzen ari zarela eta kostarik kosta loditasuna desagerrarazi nahi duen mugimendu sozial eta kultural bat dagoela”.

Horren guztiaren normalizazioaz eta argaltzeko sistemak erabiltzen dituen terapienez eta praktikez ere mintzatu da: “Egun, sumindu egiten gara konbertsio terapiengatik, baina normala iruditzen zaigu aldizkako baraua egitea”. Indarkeria tresna horien artean ez daude soilik dietak, badira ere gosea murrizteko ebakuntzak edota Ozempic bezalako botikak. Ondorio laugarriak izan ditza-kete: “Asko kontzientziatu behar da ulertarazteko lodiak ez garela erradikatu beharreko arazo bat”.

### DIETEN GURPILA

De Tenaren kasuan, dietek eragin handia izan dute bere bizitzan. Txikia zelarrik, lodia baino gehiago “handia” eta “oso altua” zela dio: “Beti izan naiz oso handia, baina ez nintzen loditasunaren estandarretan sartzen. Aldi berean, ar-



gala ere ez nintzen". *Heroin chic* modaren testuinguruan hezi eta hazi da: 1990eko hamarkadaren erdialdean eta 2000. urtearen bueltan indarra hartu zuen gorputz moda bat da. Ezau-garrietako batzuk ziren azal zurbila, begi-zuloak eta oso gorputz argala izatea. Nabarmendu du horrek elikadura nahasmendu "pila bat" aktibatu zituela: "Irudi horrek ez zigun onik egin mugan gaudenoi. Nire kasuan adibidez, 14 urterekin familiak dieta egitera eraman ninduen eta dieten zikloan sartu nintzen. Dietek hasieran pisu asko galarazten dizute, baina gerora, askotan, galdu duzuna baino gehiago irabazten duzu".

Argaltzearen eta loditzearen gurrpilean zegoelarik, 19 urteen bueltan erabaki zuen ez zuela dieta gehiagorik egin nahi: "Dietak egiten hasten garenean, normalean gure gorputza oraindik garatzen ari da, eta gabezia horietara ohitzeak ondorio lazgarriak eragiten ditu gure organismoan". Dietak egiteari utzi zionean, urdaila eta metabolismoa "txiki-txiki eginda" zeuzkan. Hori

dela-eta, loditu egin zen egungo pisuan egonkortu arte: "Banekien pertsona lodiak gaizki ikusita zeudela gizartean, baina loditu nintzenezan hasi nintzen benetan indarkeria estrukturala eta materiala pairatzen eta identifikatzen". Medikua aipatu du: "Argala nintzenezan medikuarenera joan eta probak egiten zizkidaten. Lodia nintzenezan aldiz, esaten zidaten gertatzen zitzaizaidanaren arrazoia zela lodia nintzela".

Beste adibide asko daude, lodifobiari lotuta. Podcastaren helburua da horiek guztiak mahaigaineratzea. "Bidaia bat izan da. Elkarrizketa politikak eta gogorak izan ditugu". Hitz horiekin deskribatu du lagunarekin egiten ari den ibilbidea. Kritikoak dira lodifobiarekin, eta umoreaz eta ironiaz ere baliatzen dira mezua zabaltzeko: "Bioi asko gustatzen zaigu umorea; hala ere, kontuz ibili behar da mugekin. Zenbat eta komunikazio tresna gehiago erabili, orduan eta errazagoa izanen da jendearengana iristea. Agian batzuk emozionaletik hurbildu dira gehiago, beste batzuk umoretik edo ironiatik". ●

## GORPUTZEKO ATAL BAT?

"Eskuak. Ematen didaten guztiarengatik eta erabili ezin ditudanean kentzen didaten guztiarengatik. Uste dut eskuak munduarekiko daukagun loturarik hurbilena direla; mundura heltzeko modu bat dira".

## ARGIA-REN ERREDAKZIOA



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Asteartero kazetari, argazkilari, maketzaile eta ikus-entzunezko alorrekoen taldea elkartzen da erredakzio bileran. Iñauteriak tarteko, hamabost laguneko taldea murriztuta ageri da azken bileran.

## Nola antolatzen da erredakzio bat?

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**A**RGIAren irakurle den lagun batek kuriositatez galdetu dit, orain gutxi, nola izan ohi den erredakzio baten antolaketa. Alegia, nola aukeratzeko diren gaiak, elkarrizketak, pape-reko azalak, nola koordinatzen den lan guztia. Eta nik, erdi lotsatuta, erantzun garbirik ez daukadala; kolaboratzaile naizela. Eta bere ahoa, pixkanaka, zabal-tzen, geroz eta harridura aurpegi handiagoa jarritz, esanez bezala, “aitzakia merkerik ez niri, ziur egunerokoak har-rapatuta ezin antolatuta ibiltzen zare-tela, bakoitzak berea egin eta gero nola edo ahala puzzlea osatu”. Modu pertso-nalean jaso ditut begiradarekin botatako balak eta erantzun bila hasi naiz, tiroen zauriak zornatu aurretik.

Asteartero egiten da Lasarte-Orian erredakzio bilera, 14:00etatik 17:00eta-ra bitarte. Kazetari guztiak (idazten du-tenak eta ikus-entzunezkoetan aritzen direnak, diseinatzaile/maketatzailea

eta argazkilaria) biltzen dira, eta gidoi zorrotz bati jarraitzen diote. Hasteko, erronda. Kazetari bakoitzak azaltzen du aste horretan nola dagoen, zertan ari den, estu dabilen, ez, beste ezer baduen... Temperatura hartu. Segidan, argitara-tzera doazen astekariaren errepassoa, nola geratzen ari den ikusteko, arazo berezirik dagoen... eta azala aukeratzeko lanak hasten dira. Denen artean auke-ratzen baita asteko portada. Batzuetan argiago egoten da eta beste batzuetan bizpahiru aukeren artean eztabaidatu ondoren, kontsentsu bidez erabakitzen da. Irudi nagusiaren azpiko hiru txikien txanda heltzen da gero. Eta horiek auke-ratutakoan, Interneten antolaketa. Aste-lehenetik ostiralerako orria zabaldu eta bururatutako lanak botatzen joaten dira astea gutxi gora-behera antolatuta utzi arte. Hori lotuta, datozen astekarietara-ko aurreikuspenak errepassatzen dituz-te. Eta argitaratu berri den astekariaren


balorazioetan sartu aurretik, bestelako gaiei irekitzen diete tartea. Batzuetan kazetaritza lanez jarduteko balio izaten du, alegia gai bat edo bestea nola lan-duko duten aztertzeke, Interneten eta paperean nola jorratuko duten. Baina izan liteke kazetaritza egiteko modue-tan eragiten duten gaiez mintzatzeko espazio bat ere. Azken aldian, esaterako, hitz egin dute sare sozialen gaiak edo Adimen Artifizialaz.

Eta hau dena dinamizatzaile batek gidatuta. Hilabeteko ardura izaten du kazetari bakoitzak, lau-pabost saio, eta kazetari guztiak hartzen dute parte lan honetan.

Badakit artikulu hau interesez ira-kurriko zenuena, lagun. Bada to, hor, entzun nahi ez zenuen erantzuna. Zuk nahiagoko baitzenuen gure miseriak kontatzea. Trapu zaharrak etxe denetan, bai, baina erredakzioa antolatzen ez de-nik behintzat, ezin esan. ●



# Boteretsuegia emakumea izateko



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**H**ertfordshire (Ingalaterra), 1543. Henrike VIII.a erregearen eta Ana Bolenaren alaba Elisabet hil omen zen Hatfield jauregian, 10 urte besterik ez zituela, sukarrak jota hainbat aste eman ondoren. Kat Ashley eta Thomas Parry zaintzaileek, izutu-ta, irtenbide bitxia topatu omen zuten: adin beretsuko neskato bat bilatu zuten erregearen alaba ordezkatzeko. Baina ez omen zuten neskato egokirik topatu eta Neville izeneko herriko mutiko bat, Elisabeten ikaskide eta laguna, erabili omen zuten engainurako. Inor ez omen zen iruzurraz konturatu eta mutiko hura Ingalaterrako erregina izan zen 44 urte eta 127 egunez.

Teoria XIX. mendearen erdialdean sortu zen, ustez tudortarren jantziak zeramatzan haur baten hilibia topatu zutenean. Bram Stoker idazle irlandarrak hauspotu zuen urte batzuk geroago trukearen teoria, eta 2013an, Steve Berry historialari estatubatuarrek konspirazioaren berri xehe-xehe jaso zuen *The King's Deception* lanean. Espainiar historiografiak ere zalantzan jarri du Elisabet I. arekin zerikusia duen oro, Armada Garaitezinaren porrota emakume baten meritua izan zela onartzea kostata.

Baina teoria horrek ez du inolako oinarriarik. Batetik, inork gutxik espero zuen Elisabet erregina izatea. Ustezko heriotza



NATIONAL PORTRAIT GALLERY

gertatu zenean Elisabet sasikotzat zuten oraindik, eta printzesa titulua ukatuta zeukan. Urte berean Henrikeren azken emazte Katalina Parrek Elisabet gortera hurbiltzea erabaki zuen, heziketa berezia ematea, eta orduantxe berreskuratuko zituen printzesa titulua eta tronua oinordetza eskubideak, jakina, Eduardo

anaia txikiaren eta Maria ahizpa nagusiaren ondoren.

Bestetik, bere bizitzan zehar etengabe ikusi zuten biluzik Elisabet; pertsona askok lagundu behar zioten egunero jazten eta erazten; gainera, erreginarenean ugalkortasuna estatu-aferra zen eta medikuek etengabe egiten zizkioten azterketak. Baina zenbaitentzat ez da nahikoa, eta 1603an hil zenean autopsiarik egin ez izanari heltzen diote.

Elisabetek ez zituen egin erregina batengandik espero zirenak: ez zen ezkondu eta ez zuen haurrik izan. Eta erregina batengandik espero ez zena egin zuen: erregea balitz bezala agindu –errege gehienek baino modu eragingarriagoan, gainera–. Trukearen istorio harrigarria sinesgarriagoa izan da askorentzat, Elisabet emakumea zela onartzea baino.

Berriki, *History Extra* BBCren historia aldizkaria izan da konspirazio teoriaren berri xehe eman duena. Eta, azkenean, Tracy Borman historialariak kategorikoki azaldu du inolako zentzurik ez daukala. Baina oraindik ere gorpua exhumatzeko beharra ikusten duenik bada –Steve Berry idazlea horien artean–, bost mende geroago, garaiko munduko potentzia nagusiko agintari gorena emakumea izan zitekeela sinistu ezinik. ●



PIERO BAGUZZI

## Egutegia zilarrezkoa ilargian

Chão de Lamas-eko zilarrezko objektu sorta 1913an topatu zuten Coimbran (Portugal). Objektu horien artean zeltiar jatorriko zilarrezko bi ilargi zeuden. Bi ilargiak apaingarri hutsak zirela uste izan dute orain arte. Baina, berriki, adituek ilargietan egin zituzten motibo konplexuak aztertu dituzte, eta ondorioztatutako hipotesia azaldu dute *Pa-*

*leohispanica* aldizkarian. Adituen ustez, motibo horietan 114 urteko egutegi-zikloa dago jasota, 19 urteko sei ziklotan banatuta. Gainera, patroia astronomiko horrek ilargi-egutegia eguzki-egutegiarekin sinkronizatzea ahalbidetzen du. Zeltiarren ezagutza tekniko nahiz astronomikoaren erakusle da ilargierdi pare. ●

# ELKARTE ETA KOOPERATIBA AGROEKOLOGIKOEN DES-FINANTZIAZIO MEKANISMOAK



**AINTZIRA OÑEDERRA  
ETA GOIURI ALBERDI**  
ASUNEK

**E**uskal Herri mailan txikitik handira agroekologia sustatzen duten zenbait elkarte eta kooperatiba ataka larrian daude, finantziazio iturriak bertan behera geratu ostean. Erakunde publikoetatik, berriz, elikadura negozio gisa ikusten duten proiektuen aldeko apustu irmoa nabari da. Eredu bat edo bestea babestetik haratago, trantsizio agroekologikoa eragozteko mekanismoak somatzen dira.

Ez daude momentu errazean agroekologia herrigintzatik garatzen dabiltzan irabazi asmorik gabeko elkarte eta kooperatibak. Arazoak ez datoz herriaren atxikimendu faltagatik edo trantsizio ekosozialaren bidean lurraldea gero eta makroproiektu gehiagok inbaditzen dutelako; gaurkoan elkarte eta kooperatiba hauek finantziazio lerroak izateko dituzten zailtasunez mintzatu nahi genuke.

Berriki entzun dugu Euskal Herri mailan agroekologia sustatzeko lanean dabilen erreferentziatzko irabazi asmorik gabeko elkarte bakanetakoa Jaularitzaren hitzarmenik gabe geratu dela. Egia esan, berriak ez gaituz guztiz harritu, badakigu zein den EAE mailan garatu asmo den elikadura eredua, teknologian eta digitalizazioan trebea, eta elikadurarekin negozioa egitea bilatzen duena. Hala ere, zilegi ote da diru publikoa hain modu desorekatuan kudeatzea?

Pentsa dezakegu erakunde publikoek eragile pribatu zein irabazi asmorik gabekoekin dituzten hitzarmen edo dirulaguntza izendunek klientelismoa sustatu dezaketela, eta beraz, bidezkoagoa litzaitekeela deialdi publikoen aldeko apustua egitea. Baina hor ere zalantzak sortzen zaizkigu. Badirudi trantsizio agroekologikoa bideratzeko saiakeran emaitza interesgarriak lortzen ari diren zenbait elkarteren lana finantziazio iturririk gabe



uzteko mekanismo eraginkorra suerta daitekeela.

Ez dugu zalantzan jarri asmo deialdiak ebazteko orduan ebaluazio irizpideek eta espreski sortutako Ebaluazio Batzordeetako kideek duten zilegitasuna, baina badira arreta jarri beharko geniekeen zenbait kasu. Esaterako, Elikadura Jasangarria lerro nagusitzat duen Gipuzkoako Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz-Misioak programari erreparatuta, 2023ko eta 2024ko ebazpenek erakusten digute hainbat kontsumo- eta nekazari-elkarte eta kooperatiba dirulaguntzarik gabe geratu direla; dirulaguntza partida esanguratsuenak, berriz, ingeniaria-, marketin aholkularitza-, teknologia eta zientzia-, komunikazio- eta digitalizazio- enpresak jaso dituzte. Beraz, badirudi proiektu agroekologikoak baino, teorikoki Garapen Jasangarrirako Helburuak euren txostenetan jasotzen dituzten Elikadura Klusterrak direla elikadura jasangarriaren aldeko apustua egiten ari direnak. Antzeko zerbait gertatu dela esan genezake, Ekonomia Sustapena eta Proiektu Estrategikoetako departamentuak duen Trantsizio Ekologiko Jasangarria eta Bidezkoa sustatzeko programarekin ere.

Eusko Jaularitzako Ekonomia, Lan eta Enplegu sailetik bideratzen den Euskadi

Next programari ere erreparatu ahal diogu. Trantsizio energetiko ekologikoaren, trantsizio digitalaren eta gizarte-kohezioaren erronkei aurre egin eta Giza Garapen Jasangarria bultzatzeko diseinatu da. Baina nola liteke hain justu “Next Generation” edo hurrengo belaunaldiei erreferentzia egiten dien funts horiek, gaur egun lurraldean ditugun natur baliabideen ustiaketa arrazionala sustatzea? Begiratu besterik ez daude Euskadi Next programak hobetsi dituen proiektuak: digitalizazioa eta berrikuntza lerroan, “Smart Food Country 4.0: Euskadiko elikadura-katearen digitalizazioa”, “Akuikultura-ekoizpeneko lehorreko parkea Basordasen”, edo “Basque Food Ecosystem: Euskal elikadura-sistema segurua, jasangarria eta osasungarria garatzea”.

Aurreko batean ezatzen genion Ferrnando Valladaresi estatu mailan herri-tarrek bizi-baldintza egokiak izateko behar den energiaren bikoitza ekoizten dela egun, eta era berean, mundu mailan ekoizten diren elikagaien erdia xahutzen dela. Euskal Herrira etorrita, onartezina da dirulaguntza lerroak neurrigabeko hazkunde ekonomikoa sustatzera bideratzea. Programak norentzat eta zertarako ezartzen diren berrikusi beharra dago. ●

## A ZE FAUNA!

# AHUNTZAK GUSTUKO OMEN DITUEN GAUTXORIA



**NEREA PAGALDAI AGIRIANO**  
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

**K**atalanen ustetan artzainak en-gainatzen omen ditu hegazti honek: “enganyapastors”. Espainiar eta latindarrek, aldiz, ahuntzari esnea kentzen diola diote, hortik dator-orkio hain zuzen ere izen zientifikoan (*Caprimulgus europaeus*) islatzen den *caprimulgus* (*capra* “ahuntza”, eta *mulguere* “jetzi”), gazteleraz “chotacabras”. Euskaraz, aldiz, gaubele, gauoilo, gau-txori, oilozar edo zata da. Izen ofiziala zata arrunta du.

Eremu irekietatik zein baso ertz edo baso-eremu zabal inguruetatik gauzez “errr-urrrrr-urrrreeerrrrr” luze-luze bat entzunez gero, motozerra eta kilkerraren arteko zerbait ematen duena, zata entzuten ariko zarete!

Hegazti hau kakalardo eta sitsak be-

zalako intsektu gautarrez elikatzen da. Horretarako, normalean adar batean zain geratzen da eta harrapakinena hegan pasatzen dela ikusiz gero, adarretik salto egin eta hegan doala harrapatzeko du ahoarekin, hori zabal-zabalik duela. Abereak dauden eremu irekietan kakalardoak ugariak izaten dira, eta zatak gustuko dituzte, hegazti hau abere artean topatzea oso ohikoa da. Hori ote da ahuntzekin erlazionatu izanaren arrazoia?

Zata arrunta udan aurki dezakegu Euskal Herrian. Negua Iberiar Penintsulan igarotzen duten ale batzuk badauden arren, indibiduo gehienek Afrika tropikalean igarotzen dute. Martxo-apiril aldera heltzen da Euskal Herrira umatze-ra, eta irail-urri artean egiten du buelta



Hiru zata arrunt daude kamufletuta argazkian. Ikusten al dituzu?

## ZATA ARRUNTA

*Caprimulgus europaeus*

**TALDEA:** Ornoduna / Hegaztia.

**NEURRIA:** Mokotik isatsera 24-28 cm. Hego-luzera 52-59 cm.

**NON BIZI DA?** Eremu irekietan, baso ertz, baso-eremu zabaletan.

**ZER JATEN DU?** Intsektuak.

**BABES MAILA:** Europa osoan babestuta dago.

Afrikara. Lurrean egiten du habia zatak, zuhaixka edo enborren baten oinean babestuta. Eta primerako kamuflaia du! Forma luzekarekin eta kolore marroiekin, lurrean dagoenean hosto bat dirudietan. Adarretan baino, lurrean igarotzen du denbora asko hegazti honek eta bere gain-gainera iritsi arte ez da mugitzen, ia zapaltzekotan zaudenean altxatuko da: “Ilunbistan tup! Arditatik atera, eta bueltaka pertsonaren bueltan ibiltzen da”, diote hernaniarrek. Lurrean egonda hegan egiten hasten denean, lurretik altxatzeko modu berezia du, pertsona batzuk nahastu ere egiten dute: “Askok egiten dute oilagorarekin deskuidatu, altxaeran”. Atentzioa ematen du, gainera, ez baita txikia: hegotik hegora metro erdi pasa du.

Hegazti berezi hau ere ez dago kontserbazio mehatxuetatik libre, zoritxarrez. Zataren dieta intsektu handiek osatzen dute, batez ere. Nekazaritzan erabiltzen diren produktu kimikoen gehiegizko erabilerak, esaterako, sits eta koleopteroak murrizten ditu, ondorioz, zataren dietaren zati handi bat ere gutxitzen du. Horrez gain, adibidez, EAEko baso-landaketetan, landare-osasunerako substantziak erabili ohi dira, eta horiek zatengan ondorio larriak ekar ditzakete: aipatu bezala, fumigazioek zatek jaten dituzten sitsen populazioak murriztu ditzakete. Baina, gainera, zatek jaten dituzten sitsak fumigatuak izan baldin badira, zatak berak substantzia toxikoa irentsiko du eta osasunean kalte eragin. ●

# LORATU ALA HIL. LORATU ETA HIL



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**N**oizbait. Noiz izan ote zen? Noizbait landareren batek lorea egitea erabaki zuen. Bai, bai, landareek ere erabakiak hartzen dituzte, eta guk maiz ez bezala, erabakiak bete egiten dituzte. Eta loreak sortu zituzten.

Ez asko arte, uste zuten lehen landare loreduak duela 140 milioi bat urte sortu zirela. Garai bateko gure aurreko baleazaleek ederki ezagutzen zuten uharte enblematiko batean, Norvegiako Svalbard uhartediko Spitsbergenen topatu dituzte, baina, 100 milioi urte inguru lehenago ere bazirela erakusten duten aztarnak, Erdi Triasikoan, alegia. Gerora antzeko trazak topatu dituzte Suitzan. Bi aurkikuntzak Zuricheko Unibertsitateko Susanne Feist-Burkhardt eta Peter Hochuli irakasleen lanaren emaitza dira. Egundo ez dute topatu landare loreduen garai modutsu haietako fosilik. Aurkitu dituztenak polen aleak dira. Eta polenik bada, loreak ez dira urrutiti. Samur, hauskorra izan lorea, eta ezin kontserba... Baina lasai, gutxiena uste dugunean aurkeztuko digute garai hartako loreren baten fosila. Oraingo, polen aleekin etsi behar.



TONY RODD / CC BY-NC-SA-2.0

Banbuek ehunka urte egin ditzakete loratu gabe eta loratu ostean hil egiten dira.

Garai hartan bi gune horiek klima subtropikaleko eremuak ziren, baina baldintza oso bestelakoak zituzten: bata hezea zen eta bestea lehorra. Ondoriozta daiteke landare loreduak baldintza ekologiko askotarako prest zirela. Eta mundu honen, Lur osoaren, kolonizazioa abiatu zuten. Loreek bektoreak behar zituzten batetik bestera polena eramateko eta polinizazio sindromea edo lore sindromea deritzana etorri zen: nola erakarri intsektu edo dena delako bitartekari egokia. Garai hartan lore handiak eraikitzen zituzten, artean erlerik ez zen-eta, kakalardoek ernaltze lana behar bezala egin zezaten.

Harrezkeroan milioika landare loredu garatu da eta bakoitzak bere bidea jorratu du. Ez loregintzan soilik. Batzuek erabaki zuten egun gutxi batzuetan jai, hazi, loratu, haziak eman eta hiltzea: errefautxoak, adibidez, bizitza oso baten bide hori 50 bat egunetan osatzen du; sasoi bakar batekoak edo urteko landareak esaten zaie. Beste batzuek bi sasoi edo urte behar dituzte, biurteko esaten zaie, eta lehen urtean hazia erne eta landarea haziko da, eta bigarrenean loratuko da eta fruituak eta haziak emango ditu. Hirugarren kuadri-

lla batekoak bizikorak dira: bere zikloa osatzeko hiru urte edo gehiago behar dituztenak; adibidez, milaka urte bizitzeko gai diren zuhaitzak.

Lagunarte horretakoek, bizitza tarte horretan, loratu eta fruituak eman eta haziak zabaltzea urtero edo zenbait urtetik behin egingo dute. Sagarrondoarena (*Malus domestica*) bi urtero izango da, bai-urtea edo baialdia eta ez-urtea edo ezaldia. Pagoak (*Fagus sylvatica*) 4-8 urteko tartearekin izaten du bai-urtea. Horiei "polikarpiko" esaten zaie.

Badira monokarpikoak ere. Bitxiak egiten zaizkigu: urteetan bizi, hazi, handitu eta behin loratzea erabakitzen dutenean loraldi hori ekarri, fruituak eta haziak eman eta hil egiten dira. Loratzea hiltzea da. Loratuz bere buruaz beste egin. Bere buruaz lore egin. Horietako batzuk baditugu gure artean. Euskal Herri lehorrean bizi den agabe mexikarra da bat (*Agave americana*). Euskal Herri hezean ezagunenak, ehunka urte loratu gabe bizi daitezkeen banbuak (*Bambusa spp.*); izan ere, ikusi al duzu sekula banbuaren lorerik? Ba inoiz loratuta ikustea egokitzen bazaizu, gogoan izan, bere buruaz lore egiten ari da. ●

## BORDAXAKI

## EUSKAL TXERRIAK HAZTEKO ETA ERALDATZEKO PROIEKTU TXIKIA NAFARROAKO PIRINIOAN



GARAZI ZABALETA

ruñean bizi ziren Iñaki Zoko Lamarka eta Andoni Arizkuren Eseberri gazteak, baina familiaren herriarekin, Otsagabiarekin, lotura estua zuten biek betidanik. “Lehen, asteburuetan eta udan etortzen ginen eta duela urte batzuk bizitzera etorri ginen”, dio Arizkurenek. Turismoaren sektorea nagusi zen bailaran, baina lehen sektoreko proiektu bat martxan jartzeko gogoz ziren bi gazteak. Zokoren familiaren borda moldatu eta euskal txerriak zituen lagun baten bidez iritsi ziren mundu horretara duela hamar urte: “Euskal txerriarekin hastea, nolabait, erdi kasualitatea izan zen”.

## BERTAKO ARRAZA BERTAN KONTSUMITZEKO

Elizondoko euskal txerri hazle batekin harremana izan zuten hasieratik Bordaxakiko kideek. “Euskal txerria bertako arraza izanda, kanpoan hazteko prestatuta dago, eta hori nahi genuen guk”, azaldu du kideak. Bidean ikasi dute, eta ikusi dute arraza hori beste batzuk bezain produktiboa izan ez arren, kalitate handiko haragia duela: “Gantz infiltratua izaten du, iberikoen antza duena”. Bertako produktua izateari eta kalitateari garrantzi handiagoa eman diote hasieratik, kantitateari baino.

Izan ere, ekoizpen txikia dute Bordaxakin: 25 zerrama dituzte, eta 100 zerri inguru gizentzen dituzte urtean. “Gaur egun dauden ekoizpenak ikusita, txikia

da gurea. Helburu argia izan dugu beti: gu biok honetatik bizitzea, asmoa ez da handitzea izan”, dio. Azken urteetako joera izan da bolumena handitzea eta produktua kanpora bideratzea, baina hori da Bordaxakin nahi ez zutena. Bertan kontsumitzeko produktua egin nahi zuten, eta etxalde handietako ekoizpen eredutik urrun: kanpoan, aire librean dituzte animaliak, eta ziklo osoa dute haien esku, hazkuntzatik eraldaketaraino.

## ERALDAKETA GUNEA ETA DENDA

Proiektua duela hamar urte abiatu bazuten ere, hasierako urteetan beste lan batzuekin uztartu zuten: “Pixkanaka joan gara, probatzen, ikasten... iaz, gure eraldaketa gunea martxan jarri genuenean, bete-betean honetara jarri ginen”. Bertako errezetak eta egiteko moduak darabiltzate eraldaketan, eta esaerak dioen moduan, zerriaren gutzia baliatzen dute: pateak, odolkoa, tripotxa, burukia, hanburgesak, saltxitxa freskoak, txistorra, birika, lukainka, txorixoa, saltxitxoia, hirugiharra, masaila, xolomoa, azpizuna, hanka-belarriak...

Salmentarako zuzeneko bideak darabiltzate: batik bat dendan saltzen dute, eta inguruko jatetxe eta denda txikietan ere bai. Proiektuak denbora asko eskatzen dien arren, parte hartzen dute Euskal Txerria elkartearekin, Ipar Euskal Herriko ekoizleekin eta Pirinioetako Larretik proiektuarekin elkarlanean. ●



**ESTREINALDIA**

**ATERPEA**

Diskurto faxisten dianan dauden herritarren aterpe

Martxoaren 12an hasita asteazkenean 21:30ean Hamaika Telebistan

**hamaika**

# “ ”

## Gazteon ahots kritikoa entzunarazi nahi dugu, txapelketaren formak determinatu gabe

**Aroa Arrizubieta**  
'Gaztetxeak Bertsotan'

Martxoaren 14an hasiko da bertso-sariketa berria Itsasun, eta zazpi kanporaketa izango ditu: Hernanin, Mutrikun, Altsasun, Bilboko 7katun eta Gasteizen. Finala iragartzeko dago. Sariketa berezia izango da, 24 gaztez osaturiko hamabi bikoteren artekoa, 2000. urtetik aurrera jaiotakoak denak ere. Bertsoaren munduan dabiltzan hainbat gaztek osatutako talde motor bat dago egitasmoaren atzean, "kezka konpartitu batzuk" zituena. Horietako bat da Aroa Arrizubieta (Gasteiz, 2001).

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  ENDIKA PORTILLO / FOKU

**"Gazte askok ez daukate txapelketetatik harago kantatzeko aukerarik", zenioten Bertsoa.eus-eko elkarrizketan. Horretarako sortu da Gaztetxeak Bertsotan, gazteei plazak emateko?**

Txapelketak determinatu ohi du zein bertsolarik edukiko duen plaza eta zeinek ez, eta hortik kanpo gera daitezke hainbat estilo, esaterako gaztetxeetan funtziona dezaketenak. Irakurketa hori egiten genuen eta kezka horretatik sortu zen lantaldea. Badira, noski, txapelketatik kanpo saioak edukitzen dituzten bertsolari gazteak. Baina batzuetan infantilizatu egiten dira profil horiek, eta "gazteentzako gaiak" deitzen dietenak jartzen zaizkie. Saioko "gazteen komodia" betetzeko papera hartzen dutela iruditzen zaigu, eta guk nahi duguna da gazteei plaza eta ahotsa ematea. Esateko daukatena esatea, entzutea, txapelketaren formak determinatu gabe.

**Infantilizazioa aipatu duzu.**

Esango nuke horra jotzen dela, bai. Baina ez da kontzienteki egiten, ez dago "izorratzeko" asmorik. Gazteak bertso-saioetan kantuan jartzen direnean, adibidez, ez zaie ipintzen etxe-kaleratze baten inguruko gairik. Edota ematen du gazteek ez dutela kantatuko hartu berri den erabaki politiko baten inguruan. Jartzen zaie kantuan parrandaren eta gisa horretako gaien bueltan. Gazteen egunerokoaren parte izan daitezkeen gaiak direla? Bai, eta horri buruz ere kantatu beharko genuke, hala uste dut, baina beste hainbat gairi buruz ere bai.

**Aipaturiko elkarrizketan zenioten txapelketan marko bat jotzen dela ontzat, eta horrek eragiten duela beste estilo batzuk kanpoan uztea.** Txapelketak ezartzen duen markoak egiten dio erreferentzia egungo euskal klase ertaineko edo normalean saioen

publiko izaten den jendeari. Ez dugu uste hortik erabat kanpo gaudenik, baina nahiko genuke hortik kanpo kokatu eta geuretik kantatu. Pobretzen ari den gazteriaren parte gara, jasango dituenak gertatzen ari diren ondoez guztien ondorioak, bai orain eta bai ondoren.

**Zein gai jorratuko dira?**

Ez dugu aurreratuko gaien ingurukorik, hein batean bertsolariek eurek erabakiko dutelako, baina ez dugu ontzat eman nahi aurrez aipatzen nuen txapelketako markoa.

Iruditzen zait, dena dela, nahiko argia dela Poliziaren gaia. Ipinen gaia Bizkaiko Txapelketako saio batean, zinetan bi udaltzain ziren bertsolariak, eta zalantzan jartzen zen ea udaltzainek suzko armak erabili behar zituzten ala ez. Guk dioguna da: jar dezagun zalantzan Poliziaren funtzioa bera, zer interes zaintzen edo babesten dituen egungo

gizartean. Horri egiten diogu erreferentzia aipaturiko marko hori ontzat eman ez eta hortik kanpo kokatu nahi dugula diogunean.

### **Txapelketa ala bertso-sariketa, nola ulertu behar dugu *Gaztetxeak Bertsotan*?**

Sariketa forma izango du, uste dugulako motibazioa ekar dezakeela horrek jende batengan. Eta saio kopuru gehiago egiteko aukera ere ematen du. Baina zerbait konstantea izatea nahi dugu: esaterako, finalaren egunerako zerbait berezia prestatzen ari gara, hasieratik kantatu

duten bertsolari guztiei berriz ere kantatzeko aukera emanda. Ez dugu sariketarik inor kanpoan uzterik nahi.

### **Zergatik gaztetxeetan?**

Iruditzen zaigu gaztetxeak badirela instituzioetatik kanpo antolatzen espazio oso garrantzitsuak, kulturalki ere ekarpen handia egin dutenak. Uste dugu, gainera, garrantzitsua dela bertsolaritzak gaztetxeei ekarpena egitea, eta gaztetxeek guri ere egingo digula ekarpena. Era berean, publiko berri batengana iristeko forma ere izan daiteke, baita bertsozalea den jende bat gaztetxeetara

bertaratzeko ere, gaztetxeen funtzionamendua ikusi eta giroaz gozatzeko. Gaztetxeak indartu nahi ditugu eta uste dugu bertsolaritzatik ere egin dezakegula.

### **Nortzuk zaudete honen guztiaren atzean? Eta nolakoa ari da izaten antolaketa?**

Bertso munduan gabiltzan eta kezka konpartitu batzuk geneuzkan gazte batzuen ideietatik sortu da talde motorra, eta gaztetxeekin ipini gara kontaktuan, lurraldetasuna zaintzeko asmoz, harremanengatik gertu egokitzen zitzaizkigunekin oro har. Galdegin zaie ea interesa edukiko luketen horrelako zerbait antolatuko bagenu, ea uste duten ekarpena egingo liekeela. Guk saioak prestatu ditugu eta gainontzekoa haiek egingo dute, gai jartzaileak beraiek bilatu dituzte eta eguneko edo arratsaldeko plan osatuagoak antolatu ere bai.

### **Ariketen aldetik nobedaderen bat sartuko duzuela irakurri dizuet.**

Beste sariketetan funtzionatu dutela iruditu zaizkigun ariketak hartu ditugu, eta bai, gauza berri batzuk probatzera ere bagoaz. Saio dibertigarriak sortzea da gure asmoa: inoiz bertso sariketarik entzun ez duenak gozatzeko modukoa, baina aldi berean oso bertsozalea edo bertsolaria denari ere gustatuko zaiona. Eta benetan kantatu egingo den sariketa izatea, ez tontakeriak egiteko, azken horretatik ere izango duen arren.

### **Publikoak, gainera, parte hartuko du.**

Epaitzerako orduan, bai, hartuko du parte jendeak, eta gero bigarren aukeraketa edo *repesca* moduko bat egongo da. Hor beste era batean hartuko du parte publikoak. Saioetan ariketaren bat ere egongo da zeinean publikoak izango duen zerikusia.

### **Duela hamar urte egin zen *Plazatik Gaztetxera*. Hura izan duzue oinarri. Tankera ere hartuko du?**

Bildu gara antolakuntzan ibili zirenekin, beraiek ere bazuten eta gaztetxeak politizatzen eta bertsozaletzeko helburua. Aholkuak eman dizkigute, egon gara haien saioetatik ideiak hartzen. Esango nuke, hortaz, tankera hartuko duela, antzekotasunak identifikatuko direla. Baina saiatuko gara hori dena garai berrietara egokitzen. ●



# Chantal Akerman eta urrezko 80ak

Donostiako Tabakaleran, beste urte batez, hitza eta irudia elkar nahasi eta lotu dituzte *Zinea eta literatura* jardunaldietan.

Aurten, Chantal Akerman zinegile belgikarraren obra izan dute aztergai; haren film bana hautatu eta aztertu dute Itxaro Bordak, Karmele Jaiok eta Danele Sarriugartek.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

**J**atorri poloniarreko judu familia batean jaio zen Chantal Akerman (Brusela, 1950 - Paris, 2015). Bere senide ugari Auschwitzera bidali zituzten kontzentrazio esparrura; ama bakarrik salbatu zen. Ingurugiro malkartsu horretan hazi eta hezi zen Akerman, Belgikan, eta goiz ekin zion pasio zuen zinemagintzari. Arlo horretako ikasketak egin bai, baina lehen unetik ezinegonak praktikan ipintzekoa zen gehiago; film labur asko egin zituen. Zinema independentean murgildu zen, pelikula esperimentalak egiten, eta 25 urte baino ez zituela *Jeanne Dielman* argitaratu zuen, sona berezia emango zion obra. Zinemaren historian, "feminismoaren lehen maisulan" gisa izendatu zuten hainbatek. Film horrek etxeko langile baten egunerokoa kontatzen du, zeinak bere burua prostituitzera behartuta ikusten duen bere semearekin bizi ahal izateko.

Film gehiago egin zituen gerora, baina estilo nabarmen aldatuta. Azpimarratu ohi da bere pelikulak eguneroko bizitzaren hausnarketa direla, baina sekula ez forma berean eginak, ezta gogoeta berak ere. Identitate femeninoa eta sexualitatea landu izan ditu, baina berak bazioen ez zela "zinegile feminista", baizik eta "Chantal Akermanen estiloko pelikulak" egiten zituela. Berak esaten zuen: "Ez dut berriz *Jeanne Dielman* egingo". Eta agian hainbesteko sonarik ez, baina ondoren egin zituen pelikulek inpaktua eragin zuten garaiko gizartean.







Golden Eighties filmeko fotograma bat. Filminen dago ikusgai.

## Golden Eighties pelikula argitsua, zentzu ugaritan

**T**abakalerako zikloan Akermanen filmografiaren inguruko hiru egun antolatu dituzte: urtarrilaren 16an, Itxaro Bordak *Jeanne Dielman* aurkeztu zuen; otsailaren 6an, Karmele Jaiok *Golden Eighties*; eta martxoaren 6an, azkenik, Danele Sarriugartek *News from Home*. Bigarren saioan egon gara, *Golden Eighties*-en.

“Interesgarria egiten zitzaidan *Jeanne Dielman*-etik haragoko Akerman bat ikustea; *Golden Eighties* musikal bat da”, adierazi du Karmele Jaiok. 1986an ikusi zuen argia pelikulak. Akermanen lehen proiektio handia izan zen. Castinga egitetik argitaratzera hiru urte pasa ziren, denbora behar izan baitzuen finantzazioa lortzeko, den-dena estudio baten barnean baitago grabatuta.

Zentro komertzial batean gertatzen da pelikula, ile apaindegi eta arropa denda baten artean, eta triangelua osatzen du taberna batek. Den-dena da barruan, pelikulako azken eszena salbu. Bi kontu ikusten dizkio horri Jaiok: “Bata da maitasuna, kontsumoaren gizartearekin lotuta, ez da kasualitatea zentro komertziala izatea erdigunea; eta bestea rola eta estereotipoak, espazio itxiak eta errepikakorrak”.

Izan ere, Jaiok azaldu duenez, Akermanen filmografian ezin hobeto erakus-

ten dira emakumeen kaiolak, espazio itxiak eta askatasun faltaren sentsazioa. Erraietatik datorkiolako, nagusiki: “Berak zioen kartzela oso presente dagoela bere obran, aintzat hartu behar baita bere familia kontzentrazio zelaietatik pasatu zela. Espazio itxiak oso presente ditu hortaz, eta pelikula honetan ere bai. Bere amak, gainera, denda bat izan zuen zentro komertzial batean”.

Kontraste handia dago, ordea, formaren eta edukiaren artean. “Txikle formako pelikula” gisa definitu du Jaiok, bereziki koloretsua eta itxuraz alai delako, bere amodio eta desamodio kontuak kontu. Sakoneko edukia da, ordea, kritika soziala. Kaiolaren errepresentazioa ikusten da pelikulan: “Klixek eta estereotipoak etengabe ageri dira; besteak beste, emakumeak txutxu-mutxuka ageri dira, sailkatzen dira ezkondu nahi duten eta ez duten emakumeak, gizon diruduna eta bere atzetik dabilena...”.

Emakumearen kaiolaren irudikapen hori ere ikus daiteke gaur egungo ekoizpenetan, hala nola Euskal Herriko zine aretoak aste ugariz hartu dituen *The Substance* filmean. Pelikula koloretsua da hori ere, Jaiok aipatzen duen “txikle” forma ere izan dezakeena, eta emakumearen begiradatik lantzen da fondoko gaia. Bistakoa da lehen ordu laurdenean

kamerari nola begiratzen dioten gizonen aktoreek, ikusleria ipinita emakume protagonistaren begietan.



Akermanen lanera itzulita. “Baten batek esango du: *Golden Eighties*-en egiten duena, hori da zine feminista?”, galdegin du Jaiok, eta berehala erantzun: “Bada, bai. Berak egiten duena da erakutsi nola ikusten duen gizarteak emakumea, eta nola gizona, eta errepresentazio hori begien aurrean uzten digu”. Detaileak ere bitxiak dira, filmean aurrera egin ahala ikusten baitira hainbat keinu, emakumeak bere autonomia-ri egiten dizkionak, emakumeen arteko adiskidetasunari eta abar. “Ironia eta burla asko dago; maitasun erromantikoari egiten dizkio erreferentzia ugari”, esan du Jaiok. Esaterako, aipagarria da ile apaindegiko langileek nola garbitzen dieten burua bezero emakumeei. “Ematen du buruan sartuta daukatena atera nahi dietela, maitasun erromantikoaren enpatxu hori”, dio Jaiok.

Soinu aldetik, bestalde, nabarmen-tzekoa da zapaten soinuak etengabe entzuten direla, etengabeko mugimendua dagoela filmean, irudi aldetik argitsua dela... baina kamera mugitu gabe, gorputzak mugitzen dira. “Maitasunaren izaera soziala nabarmentzen da horrela”, Jaioren ustean. ●



# Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA "LA FURIA" RAP ABESLARIARIK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.




# Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

# 5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Kartela. 2. Foruari dagokiona.
3. Gariaren hautsa. 4. Ilea garbitzeko xaboi.
5. Alauismoaren jarraitzailea.



4		1		3		6	7	5
6	2		7	4			1	
3	8			5	6	9		4
9	1	4	6			2	5	3
8	6			2				7
	7	2	3		1	8		
	5			7	3	4	6	9
			5	6	4	7		
	4							

ERRAZA

			1	2			8	
			3			6		7
3								
9	1		7				5	
						4		8
				6	5		1	
4		8		3			9	2
5				9	7	1	3	
	3							

ZAILA

# Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				Z	A	D	A	R
2	M				O	I	L	O
3	P	E				L	I	O
4	T	O	N				R	A
5	L	A	N	B				U
6	D	I	A	M	E			

## EBAZPENAK

7	4	6	9	1	8	5	3	2
3	9	5	6	4	7	8	1	6
1	5	8	2	7	3	4	6	9
8	6	3	4	2	5	1	9	7
9	1	4	6	8	7	2	5	3
3	8	7	1	5	6	9	2	4
6	2	5	7	4	9	3	1	8
4	9	1	8	3	2	6	7	5

ERRAZA

1	3	9	4	5	2	8	7	6
5	6	2	8	9	7	1	3	4
4	7	8	6	3	1	5	9	2
8	4	3	2	6	5	7	1	9
7	2	5	9	1	3	4	6	8
9	1	6	7	4	8	2	5	3
3	8	4	5	7	6	9	2	1
2	5	1	3	8	9	6	4	7
6	9	7	1	2	4	3	8	5

ZAILA

**PUZLEA:** "ORO HAR, BIZITZA BIHAR BUKATUKO BALITZ BEZALA JOKATZEN ARI NAIZ; MAIZ ADINAK EKARTZEN DU JARRERA HORI, EDO GAUZA POTENTEREN BAT GERTATU OSTEAN".  
**5XS:** 1. AFIXA, 2. FORAL, 3. IRINA, 4. XANPU, 5. ALAUI  
**HIZKI BERAK:** 1. ORTZADAR, 2. MOTRILLO, 3. PETROLIO, 4. TONTORRA, 5. LANBROTU, 6. DIAMETRO



# Badator, esnatu da

 AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE

**A**maitu dira inauteriak, sutan erre ditugu gaiztoak, gaizkiak, sardinak eta panpinak. Baina xomorroak esnatu dira eta badator udaberria.

Temperatura epeltzen eta eguna luzatzen hasten den egunotan, loreak zabaltzen, hostoak jaiotzen, elikagaiak bikoitzen eta hartzaren nagiak astintzen direnean, herritarrak bildu eta halako erritual bat egiten dute, bizitza eta lurra-  
ren emankortasuna ospatzeko. Horiek dira inauteriak, Euskal Herriko hainbat landa eremutako inauteriak: paganoak, basatiak, parte hartzaileak, esanguratsuak, zirraragarriak eta beldurgarriak.

Askotariko istorio eta pertsonaiak, ohitura, dantza eta esanahiak ezagutzen ditugu testuinguru horretan, baina badira guztietan errepikatzen diren elementu batzuk: animalien agertzea, hartzaren presentzia, trapuz egindako jantziak, txanoak, aurpegiak estaltzea, erritmo biziak, euskal dantzak, esnatzea, sua, misterioa, iluntzea. Asko eta asko arratsean gertatzen dira, eta ez egitarauan markatzen duen orduan, ez, eguzkia ezkututzen denean baizik. Hala izaten da, behintzat,

niretzat berezietakoa den batean: Arizkungo eta Erratzuko Gizakundea.

Publikoa zain, baina ez dago presarik, itzarotea emanaldiaren parte da. Bertakoak izaten dira hasiera ordutik hurbilen dabilzanak. Parte hartzaileak, gainera, askoz lehenago batu dira elkarrekin jantzi eta giroa sortzen hasteko.

Lehen sentsazioak ezer baino lehen hasten dira gudan, itxaronaldian, hain zuzen: nondik etorriko ote da hartza, nora egingo dut ihes, zerbait mugitu da etxe hartako leihoan, iluntzen hasi da... Eguzkiak, ordea, badaki noiz gorde eta justu orduantxe piztuko dira antortxak, joaldunen eskuetan doazela bidea zabalduz, argituz eta guztiei hurbiltzeko deia luzatuz. Aurpegia estalirik datoz maldan gora eta atzetik hartza, lotuta, badaezpada. Nagusia despistatzen denean, edonor hartu eta lurrera botako du inongo erreparorik gabe. Horiez gain, basapizti batzuk ere badabilta, aurpegia estalirik horiek ere, zakuz jantzitako arropak, makilak eta zuhaixkak dituztelarik nor edo nor izutzeko. Kontuz, azken horiek ere joka eta segika ariko zaizkizu eta. Atzetik,

## GIZAKUNDE (INAUTERIAK)

**NOIZ:** otsailaren 15ean.

**NON:** Arizkunen eta Erratzun.


sagar-dantzariak, musikariaren doinua noiz hasi zain, plaza erdia hartu eta dantzari ekiteko. Hartza desafiatu eta dantzara mugitu nahiko dute, baina Erratzura iritsi beharko du horretarako. Hona iristean, dozenaka ikusle gehiago batuko dira herri-bueltara, pertsona eskuzabal askok edonorentzat jatekoa eta edatekoa ateratzen duen bitartean. Plazan emango diote hiru ordu iraun duen eginkizunari amaiera eta han bai, han hartzak ere dantzatuko du, dantzariekin, bazapiztiekin eta herritarrekin batera. Sua piztu eta Jantzilo erreko dute, gaizkiaren pertsonifikazioa.

Hartza izan da hasieran mehatxua, baina etsaia ez da bera. Aurten, parte hartzaileen hitzez, Aroztegiaren proiektua eta haien kudeatzaileak eta interesak bota nahi izan dituzte sutara, eta berotasunera ekarri epailearen aurretik pasa beharko duten zazpi baztandarrak eta Lekaroz zein Baztango herritar xehearen bizitzak. Ezin eszenatoki hoberik, Baztango lurretan, bizitza eta lurra-  
ren emankortasuna ospatzeko erritual honetan, kapitalismoaren piztia sutara bota eta plazara biltzeko. ●



## LIBURUA

# Etxea. Aitarena, amarena, ahizparena. Nirea



DONOSTIA KULTURA

**ETXE BAT  
NORBERARENA**  
YOLANDA ARRIETA  
ALBERDANIA, 2024

**AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI**

**G**ogotsu heldu diot irakurketari. Yolanda Arrietaren obra aski ezaguna zait eta iragan maitezean argitaratu zuen proposamen honetan murgiltzeko tartea izan dut, azkenean!

Azaletik hasita egin zait iradokitzailea. Izenburuak Virginia Woolfen *Gela bat norberarena* liburuari egiten dio erreferentzia. Eta Miren Agur Meabek idatzitako *Nola atondu (dudan nire) gela bat norberarena* testuarekin gogoratu naiz ezinbestean. Azaleko irudiak perfektua ez, baina konpletoa den etxe bat erakusten digu.

Emakume eta sortzaile euskaldunak gela bat nahikoa ez eta etxe osoa izatea aldarrikatuko du Arrietak liburu osoan. Etxea, espazio fisiko gisa ulertuta. Eta, etxea, zentzu metaforikoan hartuta:

itzultzeko leku bat, sortzeko leku bat, babesteko leku bat. Eta norbere maiteak (ez) hartzeko leku hori: izan ere, bazarrik bizitzeko hautua egiten duen Idazle Andrea da gure protagonista: langilea, formala, askea eta irudimentsua.

Emakume idazle euskalduna izateko egingako hautuak dituen albo kalteak ere salatzen edo bistaratzen ditu: prekariedadea, burokrazia, Ticketbai, mundu garaikideko erritmo eta presak, beti emaitzari begira egon beharra... Baina umorez ari da, eta negarretik urruti irribarreka irakurtzen da liburuak.

Kontakizun nagusitik abiatuta beste hainbat gai ukitzen ditu idazleak: zaintza lanaren zama eta nekea, amaren heriotza, zahartzarua... Azken gai honi buruz Mari Luz Estebanek eta Arantxa Urretabizkaiak egingako ekarpenak

ekarri dizkit gogora: *Andrezaharraren manifestua* eta *Azken etxea*.

Idazleak berak esana da entsegu poetikoa dela liburuak, sentipentsatzekoa. Hirugarren pertsonan idatzita egonagaitik autobiografiatik asko duena, gainera. Hibridoak da, klasifikatzen zaila, hitz bakarrean laburbiltzeko ezinezkoa. Eta horrek bereziki interesgarria eta aberatsa egiten du testua. Aberastasuna estiloan ere nabarmena da: horizontalean idatzitako atalak bertikalean idatzita dauden zatiarekin tartekatzen dira. Ahozkotasunetik gertu dauden eta erritmo bizia ematen dioten errepikapenez, zerrendaz, onomatopeiaz betetako orrialdeak aurkituko ditugu. Eta Arrietak hain bereak dituen hitz jolasek osatzen dute kontakizuna. Manifestuaren indarra eta poesiaren sotala ditu testu motz baina sakon honek. ●



MUSIKA

# Abeslari sorta ederra



E. MORENO ESCUIBEL

**MONTERRAT AUZMENDI DEL SOLAR**

**P**lazer handia izan zen Donizettiren *La favorite* opera frantsesezko bertsioan entzutea. Esan ohi da opera honek, bertsio horretan, italiar xarma *belcantista* eta opera frantsesaren melodiatasun berezia nahasten dituela. Egia esan, gozamina izan zen entzuleentzat, nahiz eta Donizettiren operarik onena ez izan.

Hobe izango da antzezenaren alderdirik ahulenetik hastea, hau da, eszenaratzetik eta aktore-zuzendaritzatik.

Jatorrizko istorioa XIV. mendean gertatzen bada ere, eskainitako eszenaratzeari denboran kokatzea zaila da, baita espazioan ere. Pentsa genezake Sevillan kokatzen dela, elementu apaingarri batzuegatik, baina anbiguotasunak –agian hori bilatzen zuten– antzezen osoan zehar planeatzen zuen.

Bestalde, balet zatia, ia hoge minutu irauten duena, ez zen emanaldiko gauza-

rik onena izan. Dantzariak ez ziren emakume talde batek protagonizatu zuen, eta, musika zoragarria izanik ere, ikusi genuenak ez zuen zentzu handirik.

Hori bai, ahots kalitate handia entzun ahal izan genuen. Elkarren artean ezin hobeto egokitu ziren artisten bertsioa izan zen, eta orkestra zoragarri akoplatu zen ahots horietara.

Silvia Tro Santafé mezzo valentziarrrak erakutsi zuen balio segurua dela, ahots dotore eta sakonarekin, eta biribiltasuna eman zion Léonor de Guzmán pertsonaiari.

Eta zer esan Ismael Jordiri buruz, bereziki karismatikoa iruditzen zaidan tenorea. Bere ahotsak oso tinbre berezia du, distiratsua eta beroa aldi berean. Beste interpretazio batzuetan ezkutuan geratzen diren ñabardurak islatzeko gaitasun handia du abeslari horrek. Espainiako Estatuko tenorerik onenetakoa

## FITXA

**ZER:** OLBEk antolatutako Gaetano Donizettiren 'La favorite' opera.

**NORK:** Euskadiko Orkestra Sinfonikoak (zuzendaria: Riccardo Frizza) eta Bilboko Operaren Abesbatzak (zuzendaria: Boris Dujin).

**NOIZ:** otsailaren 18an.

**NON:** Bilboko Euskalduna Jauregian.

dela uste dut, zalantzarik gabe. Nortasunarekin eta ahotsa proiektatzeko modu bereziarekin.

Bai Vladimir Stoyanov baritono bulgariarrak, Gaztelako Alphonse XI papearean, bai Simon Orfila baxu-baritonoak, monasterioko priorearen rolean, profesionaltasun eta segurtasun lezio bana eskaini zuten.

Mikeldi Atxalandabaso tenor bizkaitarrak, Don Gasparren rolean, bere interpretazioetan beti eskaintzen duen kalitatea erakutsi zuen. Eta harrিতuta geratu ginen Alba Chantar soprano malagarrarekin, Inésen (Léonorren dama konfidentea) rolean, bere parte-hartze laburretan, oso ahots interesgarria erakutsi baitzuen.

Riccardo Frizzak bikain gidatu zuen Euskadiko Orkestra, eta soinu oreka fantastikoak lortu zituen, publikoaren txalo zaparradekin oso sarituak. ●

# Urgentziaz berreskuratu behar den Sartreren galdera hura

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**G**auzak ulertu nahian segitzen dut, baina ez dakit konpainiarik onena aukeratu dudana: Jean-Paul Sartreren *Zer da literatura?* leitzen pasa ditut azken egunak eta, tira, lehenik eta behin esan behar da, izenburuak iragartzen duena gorabehera, liburua amaitu ondoren hasi zenuenean bezala geratzen zarela, hitz idatzien artea zertzeari dagokionez behintzat. Eta hala ere –geroxeago esplikatuko ditudan arrazoiengatik–, aurkitu diot bere puntua.

Espektatiba handirik gabe ekin nion gainera, ze, aber, nik eduki nuen nire bolada sartrearra, gutxi gorabehera hasi zena *Goragalea* irakurri nuenean (Alberdania-Elkar, 2003; Monika Etxebarriaren itzulpena) eta ttur-ttur jarraitu zuena –arraioa, orain sinestezina egiten zait– *Izatea eta ezereza* jateraino, zipitzik ulertu gabe, hori bai. Gero etorri zen Joxemari Iturralde *Gara*-ren *Mugalari* gehigarrian idatzitako artikulu bat, kontatzen existentzialismo frantziarraren aitapontekoak alemanen okupazio garaian izandako jokabide ez oso erudugarri batzuk –artikulugintzaren zera honekin *gourmet* samarrak direnentzat, *Kaleidoskopioa* antologian (Pamiela, 2012; Aritz Galarragaren edizioa) daude jasota horietako asko, hau ez ordea–; eta, tira, esan liteke hor pintxatu zitzaizdala globoa.

Baina hara, Sartre berriz esku artera erori eta, hitzaurretetik, 1948an publikatutako liburuak gaur goizean eskribitutakoa dirudiela konturatu.

Sare sozialak eta prentsa digitala baino puska bat lehenago, ez dabil ba tipoa kekaxaka, testuok *Les temps modernes* hila-betekarian argitaratu zituenean jasotako erantzunengatik: “Zenbat ergelkeria! Azkar irakurtzen da, gaizki, eta ulertu baino lehen epaitzen da” –joder Jean-Paul, eskerrak ez zeneukala blog bat–.

Interesgarriena, dena den, bere belaualdiaren juxtu aurrekoaz –Jean Prévost, Pierre Bost, André Chamson, André Beucler– dioena iruditu zait: nola euren obrak, jende xumeen istorioak, problema sozialak erakutsi arren heroirik edo biktimarik ez zutenak; eta oinarri gisa zituztenak “humanismo diskretu” bat, esfortzuaren kultura eta erreformismo politikoa; nola autore eta liburu horiek mapatik ezabatu zituen II. Mundu Gerrako katastrofeak. “Horrelako garaietan”, dio Sartrek, “gi-

zakia Epikurori edo estoizismoari begira jartzen da (...) edo laguntza eskatzen die indar irrazionaleri, eta beraiek aukeratu zuten beren arrazoimenaren muina baino urrunago ez ikustea”.

Milei eta Musk motozerrarekin ikusi dituenak –azkenaldiko adibide ugarien artean bat ekartzegatik–, erraz ulertuko du “indar irrazional” horien aipamenak gogora ekarri didan errima historikoa. Baina liburu-dendetan osteratxo bat egiteko ohitura daukanari ez zitzaion eskapatuko epikureismoa eta estoizismoa ere moda-modan daudela. Desastre berrientzako sendagaiak, desastre zaharrentzakoan antzeko parekoak.


“Historikotasuna gugana itzuli zen”, dio aurreraxeago. “ukitzen genuen guztian, arnasten genuen airean, irakurtzen genuen orrialdean, idazten genuen hartan, maitasunean berean, historiaren gustu moduko bat aurkitzen genuen, alegia, absolutuaren eta iragankorraren arteko nahasketa garratz eta ambiguo bat”. Hum. Ezagun samarra hori ere.

Aktualetan aktualena, dena den, beste aipu hau iruditu zait: “Dena dago galduta *aukeratu* nahi badugu gerra prestatzen ari diren potentzien artean (...) Benetan egiten al da Historia emandako multzoen artean aukeratuz, eman dizkigutelako bakarrik, eta haien artean indartsuenaren alde lerratuz?”. Ia 80 urteren ondoren, galdera hori –erretorikoa, bistan denez–, berreskuratu beharrean gaude, amildegira eramango ez gaituen iritzi publikoa nahi badugu behintzat. ●



Koldo Rabadan Izagirre

# Superbotereak



10 urrats  
eskola  
eraldatze  
bidean

Haur guztiek dute  
superbotereren bat,  
helduok hala ikusi ez arren.  
Erabili behar genituzke  
eskola-proiektua  
diseinatzerakoan.

Liburua **16€**  
+ Bidalketa gastuak



Koldo Rabadan egilearekin  
hitzaldiak antolatzeko:  
[solasaldiak@argia.eus](mailto:solasaldiak@argia.eus)

# Bizi Baratzea

Lurrari begiratzeko diogunon **Orria**

Badator urtaro bakoitzean  
zabalduko den aldizkari berria.

Lur gaiak jorratzen jarraituko  
dugu *zuri esker*  
eginbizibaratzea.eus

Formatu  
berezia

Lehen alean  
posterra  
polinizazioaz

Martxoaren  
30ean lehen alea  
ARGIarekin edo  
Bizi Baratzekoa  
eginda